

# Nafarroako kulturaren zuhaitza

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza
Nagusia - Vianako Printzea Erakundea
Nafarroako Kulturaren
Plan Estrategikoa 2017-2023

cultura navarra.es

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

# aurkezpena

**Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako Kultura Kontseiluarekin elkarlanean sustatutako 2017-2023 Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa aurkezten du dokumentu honek.-**

Anitzak dira ekarpenak, gogoetak eta balorazioak biltzea ahalbidetu duten lan-ildoak eta dinamika parte-hartzaileak. Jasotako informazio horretatik abiatuta, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa eraiki da, Nafarroako Gobernuak datozen 7 urtetan zehar abian jarriko duen kultura-politika egituratuko duten ardatz estrategikoak, jarduketa-ildoak eta ekintzak barnean hartzen dituena.



# aurkibidea


1. Sustraiak — 4
**ZERGATIK?** Nondik dator

2. Zuhaitzaren elikagaiak — 10
**DIAGNOSTIKOA.** Egoeraren balorazioa

3. Enborra — 22
**ERRONKAK ETA PRINTZIPIOAK**

4. Adarrak — 35
**ARDATZAK ETA EKINTZAK** Nafarroan kultura indartzeko

5. Mantentze-lana — 114
**JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** Plana hobetzeko

# 1. Sustraiak

## Zergatik?
## Nondik dator
## [...]

## Nafarroako kulturaren zuhaitzaren **sustraiak**

Zuhaitzaren sustraia funtsezko organoa da, eusten diona. Hazteko eta garatzeko behar dituen ura eta substantzia mineralak lurretik xurgatzea da haren eginkizuna. Zuhaitzaren oinarria dira sustraiak.

Gobernuaren Programa-akordioan eta Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundearen 2016ko Partaidetza Planean daude nagusiki Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren sustraiak.

Kapitulu honek Plana sortzea ahalbidetu duten oinarriak labur adierazten ditu.



# 1.1.- Zergatik Kultura Plana 2017an?

Lau dira 2017an Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa eraikitzea eragin duten erreferentziazko osagarriak.

### > Plan bat eraikitzea, Nafarroako Gobernurako Programa-akordioaren funtsezko puntua[1].

2015-2019 legealdirako Programa-akordio honek kultura politikak xede bikoitzari erantzun behar diola adierazten du:

- Gizartea bateratzen duten eta aniztasun, askatasun, sormen, justizia sozial, gizarteratze, partaidetza eta demokrazian oinarritutako bizikidetza-esparruak osatzen dituzten balioak, bizimoduak eta pentsamoldeak sustatzea.
- Kulturaren alderdi sortzailea eta berritzailea guztiz zabaltzea, gizarte garaikideek aurre ematen dieten erronkei erantzuteko. Hurbiltasuna eta partaidetza ardatz dituen komunitatearen garapena da kultura politikaren erronka berria.

Hain zuzen ere, errealitatearen eta hautemandako premien diagnostikotik abiatutako Kulturaren Plan Estrategikoa egin behar dela (Nafarroako Kultura Kontseiluaren eskutik) aipatzen du ezarritako akordio batek.

### > Kulturaren eraikuntza Nafarroan, partaidetzatik abiatuz

Nafarroako kultura politikaren lehentasunezko ardatza da partaidetza. Lehenengo aldiz, 2016an abiarazitako Partaidetza Plana bultzatu du xede horrekin Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuaren laguntzarekin. Herritarren 601 proposamen jasotzea ahalbidetu du Plan horrek.

### > Sormen industriei eta industria digitalei ematen die lehentasuna Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak[2]




Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (S3 ingeleseko siglen arabera: "Smart Specialization Strategies") garapen ekonomikorako eredua dira. Herrialde bakoitzean lehiaketa-onura nabarmenak dituzten ekonomia-arloetan baliabideak biltzean datza eredu hori. Nafarroaren kasuan, lehentasun batek sormen industriak eta industria digitalak hartzen ditu ardatz. Gailentzen ari den sektoretzat hartzen dira sormen industriak, bereziki arlo digitalean eta ikus-entzunezkoan; sektore garrantzitsua da lurraldea, ondarea eta tradizioak (ekoizpen zinematografikoetan) jartzen dituelako balioan, eta baita hazten ari den etorkizuneko sektore teknologikoa delako ere. Zehazki, diagnostikoan musika eta grabaketa sektorearen garrantzia nabarmentzen da, Europako enpleguan duen kuota dela eta (7 bider mila). Sormena, bestalde, gainerako industria sektoreetarako funtsezko osagaia da."

1. https://www.Navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Programa/
2. https://gobiernoabierto.Navarra.es/sites/default/files/participacion/estrategia_de_especializacion_inteligente_de_Navarra.pdf

### > Interreg Europe CRE:HUB Proiektua[1]

Jardunbide egokien identifikazioa eta hedapenaren bitartez, Europako 8 herrialderen artean esperientziak trukatzea sustatzen du CRE:HUB programak. Herrialde bakoitza bisitatuko da, toki bakoitzeko KSI-en (Kultura eta Sormen Industriak) indarguneen artean aukeratutako programa eragileak ezagutzeko asmoarekin. Bisita horiek 2017 eta 2018 urteren bitartean egingo dira. Hurrengo bi urteetan zehar, Nafarroako Kultura eta Sormen Industrien garapena hobeto lagunduko duten aukeratutako ekintzak jarriko dira abian. Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundearentzat Kultura Industrien garapenerako funtsezko proiektua da hori, enpresa txiki eta ertainen aurrerapena eta Europako beste herrialde batzuekin sareak eraikitzea lagunduko baitu. 8 kideren arteko partzuergoak osatzen du 'CRE- HUB' proiektua, Basilicata (Italia) herrialdea burua delarik. Nafarroako Gobernuak proiektu horri bideratutako aurrekontua 165.455 €koa da.

## 1.2.- Begirada zabaleko Plana 2017-2023

Nafarroako Foru Erkidegoan kultura-premiak hautematea eta, Departamentuak azken bi urteotan hasitako ekintzekin batera, epe ertain eta luzeko kultura Politika ezartzea da Planaren helburuetariko bat. Tradizioa eta garaikidetasuna, hiri-mundua eta landa-mundua, programazioa, kultura eta sormen sektoreen aukeren zabaltzea eta prozesu parte-hartzaileen iraunkortasuna hartuko ditu barnean kultura politika horrek. Nafarroako kultura sektoreak balioan jarriko ditu Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak, eta datozen urteetarako lurralde osorako ibilbide orria garatuko du. Hortaz, 2017-2023 aldirako aurreikusitako denbora-horizontea.

## 1.3.- Nola eraiki da Kulturaren Plana? Metodologia parte-hartzaileari buruzko oharrak

### Nafarroako Kultura Kontseilua

Programa-akordioak ezartzen duen legez, Nafarroako Kultura Kontseiluaren (NKK) partaidetza funtsezkoa da prozesu osoan zehar. Lan-taldea osatzen duten pertsonek hasierako aurre-diagnostikoen eraikuntzan, oinarri kontzeptualen idazketan eta etorkizuneko erronken identifikazioan (prozesu parte-hartzaileetan zehar jasotakoekin batu direnak) hartu dute parte. NKK-ko lan-talde batek Planaren fase bakoitzean Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakunderekin elkarlanean egindako prozesuak eta dokumentuak balioztatu ditu.

### Ikaskuntzan oinarritutako ikuspegi metodologiakoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak 2016an egindako Partaidetza Planean lortutako ikaskuntzak eta eremu horretan herritarrek egindako ekarpenak, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko zerbitzuetako eta ataletako ekintza-planak, sektoreko txostenak eta aurreko ebaluazioak (aspaldian garatutako ezagutzari eta esperientziari etekina ateratzea ahalbidetu dutenak) oinarritzat hartuta eraiki da Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa.

1. http://culturaNavarra.es/es/proyecto-interreg-europe-crehub

## > Plan Estrategikoaren diagrama eta faseak




### A.-LANKETA

1. ETA 2.FASEAK

- Ekintza Plana eraikitzea da helburua, Nafarroan kultura eremuan abian jarritako jarduerak bideratzeko eta balioan jartzeko tresna gisa balioko duen egungo egoeraren diagnostikoa oinarritzat hartuta. Ikaskuntzan eta partaidetzan oinarritutako ikuspegi metodologikoa jarraituz planteatu da hasierako diagnostikoaren proposamena. Horrela, ondorengoak izan dira Nafarroako kultura eta sormenaren diagnostikoa eraikitzeko erabili diren informazio-iturriak: Kultura Zuzendaritza Nagusiak abian jarritako 2016-2019 Partaidetza Planak jasotako ekarpenak; Nafarroako Kultura Kontseiluak egindako aurre-diagnostikoak; lekuko pribilegiatuei egindako elkarrizketak; Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuetako zuzendariekin eta teknikariekin egindako lan-tailerra; bestelako askotariko dokumentazioa, besteak beste: oroitza-txostenak, artikuluak, sektore-txostenak, planak, aurretik landutako diagnostikoak, … Lan hori 2017ko apirila eta uztaila hilabeteetan zehar burutu da. Ondorio gisa, Nafarroako kultura eta sormen sektoreen hasierako diagnostikoaren proposamena egin da.

3. FASEA

- Aurreko faseetan egindako diagnostikoaren hasierako proposamena kultura eragileekin eta eragile artistikoekin kontrastatzea eta balioztatzea eta, hortik abiatuta, Ekintza Plana eraikitzea da helburua. 2017ko abuztuan eta irailean zehar Nafarroako hainbat udalerritan diagnostikoa eta ekintzak aztertzeko egindako lan-mahaien inguruan antolatutako sektoreen eta herritarren partaidetzaren eremuan gauzatu da helburu hori. Baita, kulturaren eta sormenaren arloetan adituak diren pertsonekin hiru eztabaida-laborategi egin dira ere: generoaren ikuspegia, kultura eta sormen industriak, eta kulturaren hibridazioa beste sektoreekin. Ondorio gisa, Nafarroako kultura eta sormenaren egungo egoeraren diagnostikoa egin da eta Ekintza Plana eraikitzeko beharrezkoak diren informazio-input-ak jaso dira.

4. FASEA

- Aurreko fasean lortutako ekarpen, gogoeta eta balioztapenetatik abiatuta, kontraste-prozesua ireki da Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin eta Nafarroako Kultura Kontseiluarekin; ondorioz, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren (NKPE) Zirriborroa lortu da.

B.-ERAKUSKETA

- 11/2012 Foru Legearen eremuan, ekainaren 21ekoa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren Zirriborroa (NKPE) publikoki ezagutzera eman da eta dokumentuari ekarpenak eta iradokizunak egin nahi dizkioten pertsona eta erakunde guztiei irekitako alegazio-epea zabaldu da. Ondoren, prozesu horren zehar jasotako ekarpen guztiak Kultura Zuzendaritza Nagusiak ebaluatu eta balioztatuko ditu, guztiei erantzuna emanez. Azkenik, lortzen den emaitza Planaren Proposamena da.

C.-ONESPENA

- Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren (NKPE) proposamena.

# 1. Sustraiak

Zergatik? Nondik dator [...]

## Partaidetza




**500** pertsonek inguru dinamika ezberdinetan hartu dute parte

# 2. Zuhaitzaren elikagaiak

Diagnostikoa.
Egoeraren balorazioa
[...]

## Lurra, elikagaiak eta ongarriak

Dinamika ezberdinetan parte hartu duten pertsonek eskaini dituzten ekarpen, balorazio eta informazio-iturri ezberdinetatik abiatuta eraiki den diagnostikoa jasotzen du kapitulu honek.



## 2.1. Lurra

Nafarroako kultura eta sormenaren egungo egoerari buruzko balorazio eta ekarpenetatik abiatuta, diagnostikoa egiteko jarraitu den prozesuan zehar jasotakoak, emaitzen multzoa aurkezten da, ondorengo egituraren arabera antolatuta:

1. Politikak eta erakundeen/sektoreen arteko koordinazioa
2. Finantzaketa eta laguntzak
3. Azpiegiturak, baliabideak eta guneak
4. Langileak eta lanbide-garapena
5. Prestakuntza eta ikerkuntza
6. Informazioa/Komunikazioa/Hedapena/Ikusgaitasuna/Balioan jartzea
7. Loturak/Lankidetza-sareak/Hibridazioa
8. Kultura-eskaintza eta eskaria

Gai bakoitzeko bi ikuspegi adierazten dira:

> **Lur ongarritua:** Nafarroako kultura sektorearen indargunetzat hartzen diren alderdiak hartzen ditu barnean; hortaz, Kulturaren Plan Estrategikoan azpimarratu, errotu, indartu eta berreskuratu behar diren alderdiak dira.

> **Ongarritu beharreko lurra:** Baita, ordea, Nafarroako kultura sektorean ahuleziatzat edo hobekuntzarako eremutzat har daitezkeen alderdiak jasotzen dira ere; horiek dira hobetu beharko direnak, hau da, ongarritu beharko direnak.

Dinamiketan parte hartu duten pertsonek adierazi dituzten ekarpen zuzen batzuk ere sartu dira.

## 2.2. Politikak eta erakundeen/sektoreen arteko koordinazioa

### Lur ongarritua:

- Maila publikoan zein pribatuan, elkarte-sare zabala dago (liburutegiak, artxiboak, museoak, antzerkia, kultura kudeaketa, arte grafikoen klusterra eta ikus-entzunezko klusterra, etab.), eta baita artisten kolektiboak, Nafarroako Kultura Kontseilu berritua (gazteagoa, paritarioa eta anitza) eta zaleen do amateurren elkarteak (abesbatzak, antzerki taldeak, dantza taldeak, ondarearekin, kultura herrikoiarekin, eta abarrekin lotutako elkarteak, …). Hauetako askok erakundeen aurrean sektoreko mintzaide gisa jokatzen dute.
- Plan Zuzentzaileak, sustapen planak, ekintza planak, etab. asko daude kulturaren esparru askotan.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jarduketa planarekin lotutako prozesu parte-hartzailearen eremuan egindako lana goraipatzekoa da.
- Departamendua zuzentzen duen taldearekiko konfiantza dago, kultura politikak hobetzeko eta aldatzeko agindu politikoa duena.
- Lege-esparru zabala dago kultura eremuan (Ondasun, Museo, Artxibo, Liburutegi, zinemagintzarako pizgarri fiskalen, eta abarren Foru Legeak; udal erakundeen arautegia, etab.) eta garatuz doana eta estatu mailan aitzindaria dena (Mezenasgo Legea, Eskubide Kulturalen Legea, egun garapen bidean).
- Ekimen pribatu eta Administrazio Publikoen arteko lankidetza azpimarratu behar da, eta baita Administrazio Publikoen artekoa ere, elkarrekin proiektuak garatzeko asmoz.

### Ongarritu beharreko lurra:

- Diru-laguntzen eskaera-banaketa prozeduren gehiegizko burokratizazioa hauteman da; horrek eragina zuzena du elkarte/enpresen ekonomian, haien jardueraren zati bat laguntza horien bitartez finantzatzen baita.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta udaletako kultura sailen arteko lankidetza indartzeko premia, Koordinazio Foro baten eraketaren bidez.
- Lege batzuk eskasak dira edo garapen handiagoa behar dute kultura sektorean agertzen ari diren beharrei aurre egiteko.
- Lege batzuez gain, kultura politikako tresna eta planak berriztatzeko eta, kasu batzuetan, sortzeko premia dago.
- Sektore batzuetan eragileen eta Administrazio Publikoaren arteko koordinazioan arazoak hauteman dira eta baita arlo desberdinen edo azken hauen maila desberdinen artean ere.
- Nahiz eta sektore batzuetan sektore mailako elkarteak egon, batzuk ez dute Administrazio Publikoekin mintzaide gisa jokatzeko eta sektorea ordezkatzen duen entitaterik.
- Kultura Hezkuntzaren mailan kokatzen duten edo gizarte hobeagoa sortzen laguntzen duen zerbitzu publiko gisa hartzen duen erakunde-politikarik ez dago; herritarrei zuzendutako politikak, haien irisgarritasuna eta prestakuntza, partaidetza eta irizpide artistikoaren hazkundea errazten dutenik ez dago.

### Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

“Creo que (la cultura) puede ser sostenible si conseguimos que las entidades locales sean capaces de organizar, promover y fomentar la cultura en las localidades.”

## 2.3. Finantzaketa eta laguntzak

### Lur ongarritua:

- Sektoreen garapena eta promozioaren jarduera mantentzen dute bekek, laguntzek eta sariek. Jarduerak irautea ahalbidetzen duen diru-sarreren iturri garrantzitsuena da maiz.

### Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

"No es sostenible si no se apoya en ayudas y subvenciones. La cultura es un servicio público. No es sostenible. La población no ha conseguido ver la importancia de este tema."

"A día de hoy cualquier sector es difícilmente sostenible, no por falta de ganas sino por la crisis y los recortes. En lo primero que se recorta es en educación y cultura; por tanto, si seguimos así el sector está condenado. Hay que focalizarlo de diferente forma para que llame la atención. Y sobre todo financiar para no perder lo que somos y/o fuimos; tanto en patrimonio material como inmaterial."

"Ahora mismo por sí solas, las entidades culturales no son capaces de subsistir. Sin ayuda pública no son viables la mayoría de los proyectos. Son proyectos caros y efímeros, con un número limitado de funciones, conciertos eventos, por tanto muchas veces se amortizan lo justo o no se amortizan. Para ello deberían salir de la comunidad foral, pero es muy difícil vender fuera ya que hay pocas opciones de mostrar los productos. - las ayudas en otros segmentos, son mucho mayores puesto que tienen mayor presupuesto, como dedicamos pocos recursos, los resultados de ellos también son menores."

### Ongarritu beharreko lurra:

- Kultura Nafarroan krisialdi endemikoa zeharkatzen ari da, eta aurrekontuen murrizketa latzengatik txarrera joan da.
- Baliabide ekonomikoen gabezia dago, instituzioetatik zein kanpoko erakundeetatik, jardueraren grapenerako eta bere sustapen eta hedapenerako edo eta baita material berriak eskuratzeko ere. Honek, gainera, biztanleriak profesionalki lan egin dezala oztopatzen du.
- Baliabide libre gutxi dago Gobernuak kultura ekimen berriak abian jar ditzan.
- Eskuragarri dauden laguntzak banatzeko eta etekina ateratzeko hutsuneak daude.
- Finantzaketa publiko edo laguntza ekonomiko urria erakundeen aldetik. Murrizketak eta diru-laguntzen jaitsierak kultura sailean gertatu dira bereziki. Honi gehitzen zaio laguntzei buruzko informazio opakua eta nahasia antzematen dela eta honek, haien arteko ageriko desorekarekin batera, mesfidantza sentimendu orokorra sortzen du sektorean. Ildo horretan, Kultura Zuzendaritza Nagusia deialdi eta diru-laguntzen inguruan lan egiten ari da helburu bikoitzarekin: epeak eta denbora erakundeen errealitate kulturalera egokitzea eta administrazioak duen denborarekin eta pertsona erabiltzaileen beharrizanekin bat datorren aukera apropos desberdinak ahalbidetzea.
- Kultura sektorea, garapen ekonomikoaren sektore gisa ez ikustea.
- Mantentze kostu altuak, diru-sarrera propio urriekin batera, laguntzekiko eta kanpoko finantzaketarekiko menpekotasun maila altua sortzen du.

## 2.4. Azpiegiturak, baliabideak eta guneak

### Lur ongarritua:

- Nafarroak azpiegitura sare garrantzitsua du kultura arlo askotan: ondarea (ondare historiko, arkitektoniko, monumental eta immaterial oso aberatsa), artxiboak (udalekoak eta pribatuak, artxibo elektronikoak), liburutegiak (udal liburutegi sarea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Unibertsitateko liburutegiak, eskoletako liburutegiak, liburutegi espezializatuak), museoak, hurbiltasuneko ekipamenduak (kultura-etxeak, auditorioak, antzokiak, musika eskolak, antzerki eskola, Civivox sarea, …), etab.

### Ongarritu beharreko lurra:

- Hurbiltasuneko ekipamendu kulturalen banaketa desorekatua lurraldean zehar edo eta ekipamenduen arteko desberdintasunak; ez da ekipamenduen plangintza eta antolamendu politikarik egon. Tokiko erakundeek plangintza edo hausnarketa estrategikorako prozesurik ez dute hasi.
- Hausnarketa, ikerkuntza, erakustaldi,.. espaziorik ez dago. Horrela espazio batek azpisektore berdineko edo beste bateko enpresa desberdinen arteko komunikazioa eta hibridazioa erraztuko luke.
- Entsegu eta sorkuntza prozesuetarako lokalak eskuragarri izateko zailtasunak.
- Desgaitasuna duten pertsonen partaidetza ahalbidetzen duten espazio eta jarduera irisgarriak ez dira kontuan hartu. Desgaitasuna duten pertsona asko (fisikoa, kognitiboa eta sentsoriala) ez dira kulturara iristen baian gogoa dute, beraz, hau da publikoak zabaltzeko aukera sektorearentzako.
- Hainbat azpiegituren mantentze kostuak oso altuak dira. Laguntzek hazkundea sustatu beharko lukete, eta ez zorra handitu.

### Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

"Partimos de que numerosos espacios no ofrecen condiciones de accesibilidad adecuadas para la participación de personas con discapacidad tanto en el rol de espectadores como en el rol de artistas."

"Falta de accesibilidad a personas discapacitadas en espacios patrimoniales."

"La accesibilidad física, visual, auditiva…de las infraestructuras y servicios culturales."

## 2.5. Langileak eta lanbide-garapena

### Lur ongarritua:

- Administrazio Publikoko langile teknikoen zein sektore pribatuko pertsona profesionalen profesionaltasun eta kualifikazio/talentu maila altua eta trebetasuna.
- "Bizirauteko" gaitasun handia kontsumoaren murrizketa handiko eta finantzaketa publikoaren garaian ziklo ekonomiko berrira iritsi arte.

### Ongarritu beharreko lurra:

- Administrazio Publikoan zerbitzu batzuk modu egokian aurrera eramateko langile gehiago falta dela sumatzen da; sektore pribatuan, bestalde, profesionalek euren jarduera garatzen duten lan baldintza ezegonkorretan daude ahuleziak. Egoera honek, norberaren ahalegin eta ardura maila oso altuak dakartza eta, ondorioz, langileen arteko ahuldura edo gogo falta.
- Sektore batzuetan profesionaltasuna hobetzeko prestakuntza premiak hautematen dira.

## 2.6. Prestakuntza eta ikerkuntza

### Lur ongarritua:

- Etengabeko prestakuntza eta hezkuntza planifikatzeko eta/ edo eskaintzeko ardura nahiko orokorra.

### Ongarritu beharreko lurra:

- Prestakuntza jardunaldien bidez kulturaren profil profesional batzuetan gaitasunak berriztatzeko premia dago.
- Arte eta kulturan eta arlo artistiko askotan, ez da ikasketarik eskaintzen Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Eta kasu batzuetan kostu ekonomiko altuko masterrak daude soilik. Honek talentuen ihesa laguntzen du.
- Kultura sektoreekin lotutako ikerkuntza eta hezkuntza eremuetan ez dago eredurik ez eta ildorik ere.
- Prestakuntza eskolek ez dituzte ezagutzen lan merkatuaren premia "errealak" ezta profil profesionalen aldaketak edo kultura eta sormenarekin lotutako espezialitate batzuetan dagoen eskaintza falta (kultura industria, arte plastikoak eta ikusizko arteak, ...).

### Begiradak partaidetzaren ikuspegitik...

"Hoy en día ser profesional de la cultura en Navarra es arriesgado y muy difícil. No es imposible pero a un coste muy elevado."

"Considero que el sector creativo cultural en Navarra está en un delicada situación de supervivencia constante, con dificultades para conseguir estabilidad profesional laboral vital y con dificultades también para poder estructurar el sector de cara a medio largo plazo."

# 2.7. Informazioa/Komunikazioa/Hedapena/Ikusgaitasuna/Balioan jartzea

## Lur ongarritua:

- Zenbait zerbitzu publikoen aintzatespena gizarte mailan eta posizionamendu ona, adibidez, liburutegi sarea edo museoak.
- Sendotutako jarrera edo kultura sektorearen gizarte mailako presentzia hobetzeko eta handitzeko ahaleginak.
- Bi hizkuntza ofizial (euskara eta gaztelania) izateagatik Nafarroak duen kultura aniztasun aberatsa. Honi gehitu behar zaio kultura herrikoiaren adierazpen anitzak eta Nafarroaren tradizio historikoa, eta osagai guzti horiek kultura nortasun sendoa ematen diote lurraldeari, herritarrek horrela bizi dutelarik.

## Ongarritu beharreko lurra:

- Nafarroako Kultura Agendaren beharra, lurraldeko kultura-informazio guztia bilduko duena eta baliabideen eskuragarritasuna, koordinazioa eta eraginkortasuna hobetuko duena. Hau da Kultura Zuzendaritza Nagusiak ekin nahi dion helburuetako bat. Hala ere, aipagarria da duela urtebete eta erditik geroztik KZN-ak haren bost zerbitzuetako ekitaldiak biltzen dituen agenda abian jarri duela.
- Herritarrek ez dute kulturaren balio eta gizarte-erabilgarritasunarekiko kontzientziarik eta kulturak ez du presentzia sozialik. Bestalde, kultura agenda ez dago ikusgai gizartearengan.
- Ikusgaitasun urria. Erakusketa zentroak eta/edo autonomiaz gaindiko edo nazioarteko proiekzio-jarduerak falta dira, kultura sektore eta sektore artistikoak ikusgai bihurtzeko eta haien lana herritarren artean zabaltzeko, besteak beste: etengabeko programazio anitza, zikloak, erakusketak, jaialdiak, lehiaketak, ...
- Sortzaileak, kudeatzaileak eta programatzaile profesionalak elkarrekin lotzeko beharrezkoak diren hedatze kanalak edo espazioen falta.
- Errealitate berriei erantzuten dieten programak falta dira: kultura aniztasuna, kultura sarean, ...
- Kultura sektorea garapen ekonomikoa lagun dezakeen sektore gisa ikustea falta da.
- Banaketa eta sustapen sare urriak. Hau, oro har, hiru bidetik gertatzen da: Hedapen-tresna desberdinen erabilera ez ezagutzea, erabilgarriak ez diren webguneak eta instituzio publikoen parte-hartze urria.
- Komunikazioan eta hedapenean eraginkortasun eskasa; webguneen edo sare sozialen dinamizazioak eta hedapen telematikoak dakarten potentzialari ez zaio behar den etekina ateratzen. Gainera, batzuetan ez da bisitariaren egunerokotasunarekin edo gaurko gaiekin lotutako informaziorik eskaintzen.
- Gazteek kulturari buruz duten pertzepzioa, aspertzearekin, urrun dagoen zerbaitekin lotzen baitute.
- Kultura-eskaintzaren gehiegizko zentraltasuna hiriburuan.
- Landako Nafarroak zailtasunak ditu kulturara iristeko. Zailtasun honi gehitzen zaio landa-ingurunean kultura sortzeko eta dinamizatzeko zailtasuna, ez baitago baliabide materialik, ez eta giza baliabiderik.
- Gure sustraiak indartzeko premia merkatu globalean berezitasuna edukitzeko.
- Komunikazioa eta hedapena ez da irisgarria desgaitasuna duten pertsona guztientzako, hori dela eta, publiko espektro batek ezin du eskuratu intereseko informazio kulturala.

## Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

"Potencial de sostenibilidad (de la cultura). De ello da prueba la tradición cultural y el número de agentes implicados en la cultura. El problema es hacer crecer ese potencial en calidad, profundidad, implicación… ha habido socialmente un proceso de atomización cultural y de identificación de la cultura con el ocio, desvinculándose así de su valor educativo, formativo… limitado a ello, es habitual que la actividad cultural sea ejercida a modo de voluntariado, colaboración desinteresada… ello redunda en falta de profesionalidad. Es necesario por ello reivindicar su valor primigenio, el valor de la cultura transformada, como manifestación humana, individual y colectiva. Con ello, recuperar su dignidad y el valor de sus profesionales. Trabajando en ello desde acciones pequeñas hasta los más complejos."

"Dentro de los grandes desafíos de los sectores culturales, quizá el principal vaya ligado por una parte a la poca valoración de la cultura por parte de amplios sectores de la sociedad lo que lleva a que sea difícil la sostenibilidad de profesionales y empresas más allá de la subvención pública."

"En mi opinión es fundamental una educación cultural a todos los niveles: desde la escuela primaria hasta la edad senil enseñando qué es "cultura", sus diversidades y sus utilidades. En segundo lugar como se pueden desarrollar las actividades culturales en las distintas edades y formas de cultura."

## 2.8. Loturak/Lankidetza-sareak/Hibridazioa

### Lur ongarritua:

- Eskualdez gaindiko izaerako (estatu maila, Europa ...) sare, federazio, erakunde, organo, eta abarretan parte hartzea eta baita lurralde barruko proiektuetan, edota beste lurraldetako topaketa, jardunaldi, eta abarretan.
- Lan ahalmen eta ekimen handiko elkarte-sare zabala, kulturan sartuta dagoena: bandak, musika taldeak, kultura taldeak, dantza taldeak, antzerki taldeak, ikuskizunetara joateko eta kultura ekitaldietan parte hartzeko ohitura handia musika eremuan prestakuntza artistikoa egotea.
- Kultura ondasun aberatsa, Turismoarekin hibridatzeko potentzialtasun handia duena.

### Ongarritu beharreko lurra:

- Kulturaren arloak hezkuntzarekin garatu beharko luke lotura garrantzitsuenetakoa, arautuko hezkuntzan hezkuntza sisteman oraindik sartu ez diren eta eskolatik kanpo soilik aurki daitezkeen diziplina artistikoen ezagutzak gehituz, eta egun arautuko hezkuntzan presentzia dutenak garatuz, eskaintza goi graduetara luzatuz. Unibertsitatean ere zenbait arlotan urritasunak sumatzen dira (arte plastikoak eta ikusizko arteak, ...).
- Elkarlaneko proiektuen bidez arlo pribatuaren (enpresak, ...) eta publikoaren (administrazioak) arteko loturak garatzeko beharra.
- Potentzialtasun handiko beste sektoreekin harreman ahula, turismoarekin adibidez.
- Enpresa sare oso atomizatu eta segmentatua Nafarroan (batzuetan sektore bakoitzean zenbat talde dauden zehazteko zailtasunak daude) merkatuan zerbitzu/produktu batzuk sartzea oztopatzen duelarik.
- Sormen sektorean lan ildoak martxan jartzea zaila da, dauden jarduera-azpisektore eta merkatu anitzak direla eta.
- Enpresa eta proiektuen atomizazio handia.

## Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

"¿Es sostenible el patrimonio cultural navarro? No, por desgracia, y hay que establecer prioridades. La sostenibilidad de un sector cultural y creativo depende de la adaptación a los tiempos. Siempre han existido las artes y su subsistencia y permanencia no puede depender de un único pilar (léase administración). La hibridación es necesaria, hay que evolucionar con los tiempos, las tecnologías y los espacios. "

"Precisamente la hibridación, a partir de la que ofrecer nuevos productos, desarrollar proyectos de investigación, atraer a nuevos públicos… puede ser la clave de la sostenibilidad."

"El sector ha sobrevivido como ha podido a un descenso brutal de recursos públicos, lo que ha menguado sus capacidades. Esta crisis ha generado una nueva dialéctica entre lo público-privado que debe llevarnos a una manera de programar y generar contenidos. La administración no está para hacer de promotor ni organizador de eventos sino para apoyar las iniciativas. Por ello, una de las principales funciones de la administración es desarrollar conexiones con otros sectores donde incluir y potenciar los elementos culturales."

# 2.9. Kultura-eskaintza eta -eskaria

## Lur ongarritua:

- Kultura Kontsumoa eta herriaren inplikazioa edo partaidetza sustatzeko metodo desberdinen ezarpena.
- Irakurketa klubak edo antzeko beste jardueretako taldeen eraketa, publikoak sendotu eta sortzeko eta baita sentsibilizatzeko asmoarekin.
- Herritarren inplikazioa eta partaidetza Sustatzeko ekintza askotarikoen abiaraztea.
- Izaera amateurreko elkarte-sarearen jarduera, herritarrak eta kultura zuzenean lotzen dituena, bai bere partaidetza zuzena sustatuz kultura sortzaile gisa, bai kultura hainbat gizarte-sektoretara eramanez, non profesionalak ez baitira heltzen.
- Ekitaldietan parte hartzeko kultura eragileek eta lotutako erakundeek duten interes naturala, kulturarekin eta sormenarekin lotutako ekintza ezberdinak sustatuz eta zabalduz.

## Ongarritu beharreko lurra:

- Bideratzen jakin ez diren aldaketak familien aisia eta kontsumo ereduetan. Publikoen sentsibilizazio eta hezkuntza eskasa edo eraginkortasun falta izan dira kultura kontsumo ereduen defizit honen arrazoia eta baita beste aisialdi motak edo aurrerakuntza teknologikoak, programazio egonkorra ez egotea, etab. Publikoak erakartzeko eta herritarrengan kultura-aisialdiaren ohitura sortzeko zailtasunak daude.
- Publikoak sortzeko plan zehatzik ez dago eta baita gizarte ikusgaitasun falta garrantzitsua dago. Funts publikoak dituzten proiektu edo entitateek publiko berriak sortzeko plan pedagogikoa barneratu beharko lukete (nerabeak, pertsona nagusiak, ...).
- Artista publiko gisa inplikatzea falta da, ez da ohiko ikuslea.
- Ez dago kultura azpiegitura eta eskaintzaren mapa edo sarerik, azpiegituren erabilera aniztasunei buruz informatzen dutenak. Horrela, beste erabiltzaileen sarbidea eta gizartearen garapena aberasten duten beste jarduera abian jartzea oztopatzen da.
- Gazteek kultura kontsumitzeko duten ohituraren eta dagoen kultura-eskaintzaren arteko distantzia.
- Doako eskaintza positiboa da publikoarentzat, baina kultura kontsumo-ondasun gisa definitzen duen kontzeptua zailtzen du.
- Kultura-eskaintza irisgarriaren gabeziak desgaitasuna duen publikoa urruntzen du eta berezikeria eta funtsezko eskubide baten urraketa da.
- Kultura-eskaintza irisgarri urria desgaitasunarekin lotu ohi da eta, ondorioz, publiko orokorrak ez du kontsumitzen.

Begiradak partaidetzaren ikuspegitik…

"El problema de la cultura por edades es que la gente joven no se interesa por la cultura. Partiendo de la base del tópico de los de letras valen menos que los de ciencias, el resto va rodado. Los adultos sí se interesan por estos temas, y los niños gracias a sus padres también, no así los jóvenes. Hay que aprender a captarlos y hacer que se interesen. "

"Hay una oferta cultural adaptada a los diferentes públicos con una alarmante excepción: el público joven. Creo que hay un vacio de oferta o una falta de trabajo y de acceso al público en una horquilla entro los 16-36."

"Las entidades públicas deberían velar por ofrecer actividades para todos los segmentos. En el caso de las privadas lo lógico será que potencien con su programación el público seguro y todo lo que atañe a otros públicos los potenciara por intereses estratégicos y sociales, no por rentabilidad."

"Hay muy poca oferta para público infantil y joven. Creo que realmente no sabemos qué es lo que quiere el público: aunque también me parece que el propio público no lo sabe."

"Hay una buena oferta de actividades culturales en Navarra. Basta repasar la agenda cultural de un día cualquiera en los medios de comunicación para constatarlo. Para una población de 600.000 habitantes creo que es una buena oferta. Si no hay consumo "alto" es probablemente debido a la educación del público y la sensibilidad que éste debería tener hacia el consumo de cultura. De ahí la importancia de la educación y creación del público."

# 3. Enborra

## Erronkak eta printzipioak

[...]

**Zuhaitzaren zurtoin nagusia, sendoa eta trinkoa da enborra.** Adarrei eta zuhaitzaren gainerako atalei eusten die enborrak

Planean, Nafarroako kultura politikarekiko begirada berriak eta baita Planaren ekintzek oinarritzat hartuko dituzten erronkek, printzipioek eta idei sendoak ere adierazten dute zuhaitzaren enborra.



## 3.1.- Kultura prisma berri batetik ulertzea

Hurrengo urteetan Nafarroan kulturak funtsezkoa izan behar duela hartuko dugu premisatzat. Kultura zerbitzu publiko moduan irudikatzen dugu; komunitate honetako hiritarren denborarekiko eta lurrarekiko sormena garatzeko aukera ematen duten balio askotarikoen, bidezkoen eta demokratikoen sustatzaile moduan, aurrez ezarritako mugarik gabe eta dimentsio sozial iraunkorrekoa, eta ideien eta haien garapenaren igorle eta hartzaile izateko dugun eskubidean oinarritua.

Gobernutik prisma berri batetik ulertzen dugu kultura, askotariko ikuspegiarekin, lidergoaren posiziotik eta erakunde publikoekin eta kultur entitateekin bitartekotza egin eta partekatzeko ikuspegiarekin, gizartea komunitate gisa elkartu eta haz dadin, bere nortasuna aberastuz eta testuinguruan askotariko alderdiak dituen gizarte garaikide batean kokatuz; esate baterako, sormen-prozesuak, lurralde-dinamikak, gizarte orekak, hezkuntza-alderdiak, ekonomia-fluxuak, etab.

Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren diseinuak nafar hiritar guztien eta bakoitzaren irismen irekia bermatu behar du, bai eta antolatzen dituen entitate kolektiboetan ere, lurraldearen eta biztanleen idiosinkrasia kontuan hartuta eta sormen artistiko, adierazpen kultural eta hizkuntzek osatzen duten kultur aniztasunari erreparatuta, lurraldearen barruan eta kanpoan, geure artean eta gainerakoekin kokapen-erlazio iraunkor batera moldatzeko eta eboluzionatzeko.

Nafarroa nortasun sendoa duen komunitate bat da, gobernantza-eredu propioetan sustraitutako historia duena, baina eboluzionatzen ari dena eta etorkizunari begira dagoena, egunez egun aldatzen den etorkizunari begira. Aldaketa teknologikoek, gizarteen arteko erlazio-eredu berriek, ezin gaitutze substratu aldaezin bihurtu; horregatik da garrantzitsua eboluzio iraunkor eta orekatu bat lantzea, gure balio historikoak errespetatuko dituena -aberastasun handiak direnak, zalantzarik gabe, eta nabarmendu beharrekoak direnak-, baina aurrera egiteko aukera emango diguna.

Horren haritik, gaur egun, kultur politikaren formak eta edukiak eraberritu egin behar dira Gizarteak susmatzen du instituzioek gizartearekin batera egin behar dutela aurrera eta kudeaketa-eredu irekiagoak sortu behar dituztela, arinagoak izateaz gain, planteamendu etikoagoak izango dituena eta kultur ekintza egunerokoagoa, normalizatuagoa, independentea, ohikoa, duina eta berritzailea bihurtuko duena eta gure gizartean balio atxiki eta besteren ezin gisa finkatua.

Kultura ez dira arteak soilik, gizarte gisa finkatzeko eta garatzeko modu bat da; horregatik, kultur politika, gure ustez, sustraitzat hartu behar da, zeharka eta eremu guztiek parte hartzen dutela. Kulturak balio bat, bertako kide izateko zentzua, ematen dio gizarteari, balio kritikoak inplementatzen ditu, eredu ekonomikoak aldarazten ditu, haien jasangarritasuna hobetzen du, lurralde-egituren osaeran eragiten du, eta haren aldeko apustua egiten duten lekuen eta egiten ez dutenen arteko elementu bereizlea da.

## 3.2.- Nafarroako kultura politikari buruzko bost begirada




### a) KULTURA EGITURAZKO OSAGAI GISA

Nafarroa eskubide historiko propioak dituen lurralde bat da: foruak ditu; nortasun definitua eta historia duen gizartea osatzen du, gure ondare historikoaren berariazkotasunean oinarritua, sistema ekonomiko berezia eta propioa dena. Kultura banakoaren eta kolektiboaren idiosinkrasiaren berezko zati bat da eta haren garapenaren parte izan da.

# 3. Enborra

## Erronkak eta printzipioak [...]

Babestu eta zabaldu beharreko kultura bat dugu, bere berezitasunak eta garapen aukerak dituena; hor datza, kulturaren berezko prozesuaz gain, hari lotutako faktore ugariren garapena. Hezkuntza, gizartearen ongizatea, kulturak beste kultura batzuekiko duen kokapena, ekonomia, ingurunearekin gaur egun nola erlazionatzen den eta etorkizunean nola erlazionatuko den oso alderdi garrantzitsuak dira.

Ezin dugu kulturan pentsatu Gobernuko sail bat balitz bezala edo arteen edo eremuen bilduma gisa, eguneroko errealitateko geruza guztien artean dabilen funtsezko zerbait balitz bezala baizik. Kultura elementu propioen ekosistema bat bere baitan duen paisaia bat da, gure garapenaren alboko alderdi guztiekin zerikusia duena.

Lurralde baten sormena ekonomiaren, bizikidetzaren edo osasunaren garapenaren gaitasunarekin batera doa, eta horiek guztiak esponentzialki txikitzen dira kultura ondasun txikiagotzat hartzen den heinean. Beraz, kareorearen gainerako eremuak kohesionatzen dituen ondasun komuna da, batzuetan hain fina, gure sistemaren zutabeen euskarri hautemanezina dela ahazten baitzaigu.

Esan dezakegu, horrenbestez, kultura baliabidez hornitzeak haren langileak duin bihurtzeaz gain, historia gordetzen duela, arteak zabaltzen dituela edo gizartea aberasten duela. Eta, horrez gain, banakoen komunitatea kohesionatzen du, eta gizarte komunaren kontzeptua sortzen du horrela.

Kulturaren balioa zientziaren balioa da, gizarteari berritzeko eta talentuei laguntzeko aukera ematen diena; hezkuntzarena, garapenari ezagutzak ematen dizkiona; osasunarena, hiritar guztien bizi-kalitatea bermatzen duena, gizarte osasuntsu eta kritikoa sortuz; ekonomiarena, kulturaren eta zientziaren diskurtsotik aplikaziorako prototipoen eta ideien oinarria hartzen duena. Kulturak jasangarritasun, irisgarritasun, kultura-artekotasun eta elkartasun balioak nabarmentzen ditu, gizarteak sistema bidezkoagoak bihurtzen dituztenak.

Gizarte baten kultur bizitasuna, aniztasuna eta kulturarako irisgarritasuna ez dira milaka milioitan soilik neurtzen, baizik inklusio-ratio, nortasun, bizikidetza, partaidetza, sormen, egokitasun, asebetetze, ilusio eta zoriona ere neur daitezke. Seguruenik, alderdi horiei guztiei adierazle ekonomikoak esleitzeko gai izango bagina, gizarte- eta ekonomia-errentagarritasuneko ratiorik altuenak lortuko genituzke.

a) EGITURAZKO OSAGAIA   b) LIDERGO PARTEKATUA

c) ERREALITATE BERRIA: KONPLEXUAGOA, HIBRIDOAGOA ETA ERALDATZEN ARI DENA   d) PRAKTIKA   e) PROZESUA

# b) KULTURA, LIDERGO PARTEKATU GISA

Gobernuak kulturarekiko duen ardura lehentasunezkoa eta funtsezkoa da, baina ez du izan behar ez bakarra ez bertikala haren dimentsio guztian.

Kultura kudeatzeko moduak hiritarren errealitatera hurbildu behar du. Lidergo eskuzabala eraginkorragoa da kulturari buruz hitz egitean, sare arinagoak sustatzen dituelako, emaitza hobeak sortu eta sektorea dinamizatzen duelako, geruza aberatsagoak sortuz, beren ideien fluxua eta haien kudeaketa txikiagoa izateko aukera emanez.

Nafarroako Gobernuak ohikoagoak eta zabalduagoak diren diskurtsoetan oinarritutako dinamika horizontalagoak ezarri nahi ditu kultur gaietan, administrazioan iragazkortasuna onartuz, kulturaren praktika dimentsio anitzetan arinduko duten ekipoak eta sareak sortuz.

Entzute aktiboak, baliabideen kudeaketa arduratsua egiteko gaitasunak eta banakoen eta erakundeen autonomiari laguntzeko jarduerak kultur aberastasuneko eta garapeneko prozesuak sortzen ditu, sistema bertikaleko eta lidergo bakarrekoak baino zabalagoak, eta artistak, kultur eragileak eta hiritarrak protagonista bihurtzen ditu.

Horren haritik, informazioa erraztea, parte-hartze prozesuak, kudeaketako ekipoak eta eredu berriak sortzea, eta anitzagoak diren erakundeetan parte hartzeko egiturak garatzea ekintza positiboa eta lehentasunezkoa da.

**Gobernuak kulturarekiko duen ardura lehentasunezkoa eta funtsezkoa da**

a) EGITURAZKO OSAGAIA b) LIDERGO PARTEKATUA
c) ERREALITATE BERRIA: KONPLEXUAGOA, HIBRIDOAGOA ETA ERALDATZEN ARI DENA d) PRAK- e) PROZE-

## c) KULTURA, ERREALITATE BERRIA: KONPLEXUAGOA, HIBRIDOAGOA ETA ERALDATZEN ARI DENA

Gaur egungo gizartearen kodeak oso azkar aldatzen dira. Aldaketa horiek denborarekin soilik hautematen dira, gure egunerokotasunean gehienetan ez dugu hautematen eboluzio iraunkor hori, eta denbora hori distortsionatuta agertzen zaigu teknologia berrien eta aldaketen abiadura zorabiagarriaren eraginez. Beraz, pentsatu behar dugu jarduteko gure moduak gaur egungo gizarteak behar dituen inputekin eta moduekin batera egin behar duela aurrera.

Administrazioak garai berrira egokitu behar luke, eta hiritarrek eskatzen duten heinean eboluzionatu. Gure ikuspegitik, uste dugu ezarritako eredua gaindituko duten kudeaketa-eredu berriak behar direla, pixkanaka kudeaketa-formula berriak sortzeko, partekatuak, kulturan eragile berriek parte hartzeko eta administrazioaren eta herritarraren arteko beste erlazio-modu eta -fluxu batzuk sortzeko. Uste dugu administrazioaren ereduak eta artearen eta kulturaren sektoreko erakundeen, profesionalen eta pertsona adituen parte hartzeak Nafarroako kultur dinamikak aberastu eta hazarazi dezaketela.

Kulturaren kudeaketa-eredu berriak (lehiaketa publikoak, programa-kontratuak, kultur politiken geruzak eta substratuak, komisariotzak, zuzendaritza artistikoak, artista elkartuak, bitartekariak eta abar sortzea) ezinbestekoak dira etapa honetan eta adituei gizarte zibil, artistiko eta profesional gisa kultur arloko politika publikoetan ekarpenak egiteko aukeraren egunerokotasunean kokatu behar dira.

Kulturaren balioak, gaur egun, gizartearen eta hiritarren egunerokotasunaren alberdi guztiak aberasteko berezitasuna eta gaitasuna nabarmendu behar ditu. Kultur politikak hiritar guztiak kontuan hartu behar ditu, salbuespenik gabe. Baina, hiritarren zati ahulena, baliabide gutxien duena edo zailtasun handienak dituena babesteko politiketan sakondu behar du, eta modu jarraituan eta iraunkorki kultur prozesuen garapenean sartutako irisgarritasun-neurriak sustatu behar ditu, eta hobetzeko eta laguntzeko neurriak inplementatu, irismen hori zailagoa duten hiritarrentzat.

Kultur gaien jasangarritasunak eta politika publikoetan oreka bilatzeak lehentasunezko helburuak izan behar dute; eta horretarako, diskurtso integratzaileak, komunak eta elkarlanekoak sortu behar dituzte, kulturaren garapenaren erritmoak ez ditzan abiadura desberdinak izan Nafarroako emakume edo gizon izateaz kanpoko faktoreen mende. Ildo horretatik, garrantzitsua da kulturako langileei behin-behinekotasunetik alde egiteko aukera emango dien eta hiritarrei kulturaren partaide aktibo diren aldetik duintasuna lortzeko aukera emango dien ekintzak sustatzea.

Azkenik, jabego intelektualaren babes-sistemetan arbitro-lanak egin behar dira, eta egile-eskubideak zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzeko ekintzak.

## d) KULTURA PRAKTIKA GISA

Kultur politikak ez du izan behar ekintza bat soilik, hiritar guztiek ezagutzen duten plangintzako eta kudeaketako tresna bat baizik. Beraz, garrantzitsua da hartan plangintza-elementuekin lan egitea, aurrekontuak eta metodologiak modu optimo eta orekatuan kudeatu ahal izateko, baliabideak hiritarrei itzultzeko zentzu demokratikoarekin eta sektore artistiko eta kulturalen garapena hobetzea pentsatuz. Politika publikoek praktika eraginkorrak eta gardenak ezartzeko balio behar dute, eta kultur ekintza modu jasangarri, anitz eta unibertsalean modelatzeko gai izan behar dute.

Gardentasunak praktika jarraitua izan behar du. Kultur politikak irekitasunez partekatzeak prozesuak aberasten ditu, proiektuei eta zerbitzuei buruzko informazioa ematen du, eta administrazioaren eta herritarren arteko erlazioa demokratizatzen du.

Epe luzeko plangintza estrategikoa ez da beharrezkoa kudeaketa publikoaren ardura eta gardentasun handiagoa lortzeko bakarrik, baizik ebaluazioa gaitzen eta errazten du, eta horrenbestez, kudeaketa politikoaren kontuak ematea ere bai. Plangintza egiteak lehentasunak eta orekak ezartzeko aukera ematen du.

Maila guztietan jardunbide egokietan oinarritutako kultur politika, eguneroko ekintzatzat hartutako jardunbideak, zehatzak eta eremu guztietara zabalduak, elkarlan-prozesuak, genero-berdintasuneko politikak, partaidetza, irisgarritasuna, jasangarritasuna eta informazioa kontuan hartzen dituen administrazio publikoaren aldetik ardura eskatzen duten ekintzen bildumatzat hartuak. Jardunbide egokien politika administrazioaren maila guztietan ezarri behar da, bereziki administrazioak hiritarrekiko ekintza iraunkorra duenetan, dimentsio anitzeko irisgarritasuna izanik beti, maila praktikoan zein araudi mailan.

## e) KULTURA PROZESU GISA

Kultura, berez, dinamikoa da, sortzailea, etengabe eraikitzen ari dena. Ondasunaz edo kontserbazioaz ari garenean ere, helburu jakin batekin, erabilera batekin edo helburu sortzaile batekin egiten dugu beti. Ez dugu planteatzean liburuak gordetzea, gordetze hutsagatik, norbaitek etorkizunean erabili ahal izateko baizik. Ez dugu gordetzen ondarea suntsi ez dadin soilik, ondoren beste batzuek hartaz gozatzeko aukera izan dezaten eta ezagutuz, errespetatu eta beren nortasun kolektiboaren parte direla senti dezaten. Hartara, adierarik kontserbadoreenean ere, kulturak ekintza-dinamikak eta prozesuak bildu behar ditu.

Emaitzak garrantzitsuak dira, baina prozesu kulturalak eta artistikoak dira dinamika sortzen dutenak eta kulturaren kultura egiten dutenak.

Kultura prozesu gisa ulertzen dugunean, "kultura egitea" eta "kultura kontsumitzea" desberdinak direla hartzen dugu kontuan.

Ez dugu kultura helburutzat hartzen, prozesuan dagoen praktikatzat baizik. Kultur politikaren ikuspegitik, sortzearen parte hartzeak kontsumoarekin berarekin partekatutako lehentasun bat izan behar du; ikuspegi bikoitza: sortzea eta ikusle izatea. Binomio horren orekak kulturaren zati sozialaren, sortzailearen eta ekonomikoaren sinergia bateragarriak eskaini behar ditu, eta haiek guztiek elkarrekin bizi eta elkarren osagarri izan behar dute. Horrek kulturaren ideia kolektiboarekin bat datozen balioak eta praktikak dakartza. Kultura baten parte izatea balio horiek eta praktika horiek partekatzea da.

a) EGITURAZKO OSAGAIA b) LIDERGO PARTEKATUA
c) UNA NUEVA REALIDAD: MÁS COMPLEJA, MÁS HÍBRIDA Y EN TRANSFORMACIÓN d) PRAKTIKA e) PROZESUA

## 3.3- Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa kultura Politika berriaren eragile gisa

Sorkuntza artistikoari, ondarearen babesari eta balioan jartzeari adore eman zieten eta herritarren eskura kalitatezko jarduera-eskaintza, zerbitzu eta ekipamenduak jarri zituzten politika publikoak kolokan jarri ditu aurrekontu-orekaren printzipioak. Krisi ekonomikoak eragin nabaria izan du kultura sektorean, Ongizate Estatuan babes gutxiago duen oinarria dela agerian jarriz.

Mozketa handienak lurralde-administrazioek jasan dituzte, kulturarekiko ardura nagusiena duten horiek. Ongizate Estatuaren politika publikoetan dagokien lehentasunezko tokian birkokatu behar dira hezkuntza eta kultura.

Krisitik geroztik, BPG-ren eta enpleguaren zati handia kulturari dagokiola erabili ohi den argudio bakarra da kulturan gastatzen dena justifikatzeko. Argudio hori osagarria izan behar da, nagusia baizik. Herritarren eta gizarte libre, demokratiko eta berdintasunezko gizarteen eraikuntzan kultura ezinbestekoa dela da argudio nagusia.

Ildo horretan, kultura-adierazpenak eta edozein sektoretan edo mailatan erakundeek eta antolakundeek sustatzen dituzten ekintzak landu eta bultzatu beharko lituzke kultura politikak, etorkizuneko alderdia eskainiz, elkarlaneko eta zeharkako lanaren bitartez, kultura eta sormen sektore guztiei erantzuten diona.

Oinarri estrategiko sendoa eta berritzailea ezarriko lukeen kultura politika berria diseinatzera eta adieraztera lagundu beharko luke Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak (NKPE). Oraina eraldatzeko, herritarren eta kultura sektoreen bizi kalitatea hobetzeko balio izango duten orientabideak elkarlanean eta modu parte-hartzailean definitzeko xedea izango luke Planak, haren ikusgaitasuna eta iraunkortasuna lagunduz.

Hausnarketarako, eztabaidarako eta ekintzarako estrategia eta proposamen zehatzen garapenerako tresnak dira plan estrategikoak; lurraldeko eragile publiko eta pribatuekin batera, kultura politikaren helburu partekatuak definitzen dituzte; egiten ari dena ordenatzera eta zentzua ematera laguntzen dute; eta , etorkizuneko erronkei taldeka aurre egitea ahalbidetzen dute.

> “Kultura ez da nire aisialdian egiten dudan zerbait,
> une orotan libre egiten nauena da”

## 3.4.- Erronkak, printzipioak eta idei sendoak

Aitzinetik ditugun hainbat erronka garrantzitsuak dira:

- Gure kultura sustatzea, globalizazioan tokia bermatzea
- Kulturaren erabilgarritasun soziala eta elkarte-sarea balioan jartzea
- Belaunaldi gazteenei aukerak ematea
- Kultura herritartasuna eraikitzea, herritartasun anitzaren premiei erantzunez

Nafarroan une honetan eraiki daitekeen kultura sistemari buruz, interes orokorraren balioa duten eta soilik merkatua ardatz duten ikuspegien nagusitasunetik defendatu behar diren kulturaren funtsezko alderdiei buruz hausnartu behar da.

### Kontuan hartu beharko liratekeen hainbat printzipio:

- Kulturaren balio publikoaren eta kulturara heltzeko eskubide unibertsalaren defentsa, berdintasunezko gizarte parte-hartzailea eraikitzeko funtsezko oinarri gisa.
- Gure kultura aniztasuna, gure ondare nagusiena. Nafarroak nortasun sendoa du, bi tradizio esanguratsu dituela: euskal tradizioa eta erromantzea. Haren bi hizkuntzek (euskara eta gaztelania), haren nortasun historiko nabariak eta haren herritartasun berriaren nortasun anitzek Nafarroa osatzen eta aberasten dute, aniztasuneko eta kulturartekotasuneko lurralde gisa.
- Berrikuntzaren bultzatzaileak eta balio erantsiaren sortzaileak diren kultura eta sormen industrien aldeko apustu estrategikoa.
- Kultura eta artea gizarte-eraldaketako proiektuekin (berdintasunik eza, berdintasuna eta zuzentasuna, genero indarkeriaren aurkako borroka, menpekotasuna, migranteak, desgaitasuna duten pertsonak, etab.), gizarte-ekonomiako proiektuekin eta pertsonak ahalduntzeko proiektuekin lotzen dituzten proiektuen aldeko apustua.
- Gobernu onaren printzipioak ezarri, informazioaren gardentasunean, administrazioen arteko lidergo partekatuan, eragileen arteko elkarlanean eta kultura politiken kontzepzioan eta ebaluazioan herritarrek duten partaidetzan oinarrituz.
- Nafarroako kultura sistemaren iraunkortasuna, kultura-guneak eta proiektu artistikoak mantentzeko behar diren baliabideen jarraitutasuna bermatzen duena, eta baita erabilera egokia eta proiektua eta kultura zerbitzua abian jarriko den lurraldearekin integrazio ona ere. Eta gizarte-itzulkina, baliabide publikoekin finantzatutako proiektuak eta zerbitzuak gizartearentzako onuragarriak izan daitezen ekimenak sortuz.

Hainbat idei sendo:

- Kultura, ondare eta zerbitzu publiko gisa; idei hori finkatzea: Kulturara heltzeko eskubide unibertsala ez da aitorpen formalik izan behar. Gizarte-sektore ezberdinen zailtasunak identifikatzeko eta horiek gainditzeko baliabideak eskura jartzeko ahalegina da. Sorkuntzara heltzeko denek aukera berdinak eduki ditzaten eta kultura-adierazpen guztiak gozatzeko konpromisoak funtsezkoa izan behar du edozein estrategian.
- Kulturaren finantzaketa publikoa: kulturaren garapenak finantzaketa publikoa, egonkorra eta ezegonkortasun politikoen eta egoera ekonomikoaren kaltetik salbu.
- Zeharkakotasuna eta lankidetza kultura-proiektuetan, lurraldeari egokitasuna, garaikidetasunaren eta tradizioaren, abangoardiaren eta kultura herrikoiaren arteko oreka.
- Partaidetza: kultura-garapenean, adierazpen artistikoetan eta kultura politiken zehaztapenean eragileen eta herritarren partaidetza bultzatzea.
- Euskara: beharrezkoa da euskara eta kultura adierazpenak laguntzea jasan duen abandonuak sortarazitako hutsunea gainditu ahal izateko. Euskararekin lotutako sorkuntza artistiko berritzailea bultzatzea, eta baita hizkuntza horretan egindako ikerkuntza eta kritika lana ere.
- Prestakuntza: prestakuntzak maila guztiak estali behar ditu, oinarrizkoetatik espezializatuetara, eta arlo guztietan. Ezinbestekoa da Unibertsitate Publikoan arte eta giza zientzietako ikasketak ezartzea.
- Sorkuntza artistikoa sustatzea, adierazpen era guztiak errespetatuz, edozein motatako aurre-iritziak gaindituz. Berrikuntzaren, asmaketaren eta sorkuntzaren aldeko apustua egitea, behar diren baliabideak artisten eskura jarriz.
- Gogoeta, ikerketa, dokumentazioa eta kritikarako eremuak bultzatzea, behar diren baliabideez hornituz.
- Profesionalizazioa: artisten eta kudeatzaileen profesionalizazioa laguntzea, sektore bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz eta behar diren araudi-aldaketak sustatuz. Kultura ekintzaileetzaren eta kultura enpresen sortzearen aldeko apustu argia. Kultura sektorearen hedapena eta nazioartekotza ahalbidetzen duten egiturak abian jartzea.
- Ondarea: ondare material eta immaterialaren berreskuratzearen aldeko apustua egitea, bereziki ondare artistikoaren aldekoa, haren berreskuratze, zaintze eta hedapenaren aldekoa. Bilduma publikoei balioa ematea, eguneratuz eta behar den guztian zabalduz. Ondare-aberastasuna behar den moduan ezagutzera emateko gailu egokiak garatzea.
- Lehentasunak eta irizpideak ezartzea edozein motatako laguntza jasotzeko gai diren kultura-proiektuen aukeraketan. Eginkizun horretarako, administrazioak pertsona adituak behar ditu, edozein kultura adierazpen edo adierazpen artistikori buruzko kontsultei erantzun diezaieten.
- Hurbiltasuneko kulturaren eta etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua. Kultura etxeen, liburutegi publikoen eta gainerako hurbiltasuneko ekipamenduen aldeko apustu irmoa, gizarte eta kultura mailan sektore babesgabeen maila kultural eta artistikoa igotzearen aldekoa.

## 3.5.- Herritarren begirada: Plana definituz partaidetzaren bitartez

- Aurreko kapituluetan adierazi bezala, kulturaren komunitatearen eta herritarren partaidetza kultura politikaren erronka berria da. Planaren eraikuntza-prozesuan zehar ekarpen askotarikoak jaso dira, kulturaren komunitatearen eta herritarren iritziz Planak nola izan behar duen ezagutzeko..
- Ondoren, Plan horrek nola izan behar duen definitzen duten ekarpen nabarienak adierazten dira:

Nafarroako Kulturaren Plan estrategikoak nolakoa izan behar du kulturaren komunitatearen eta herritarren iritziz?

### Planaren nortasun-ezaugarriak

Guztiontzako, ulergarria, argia, irakurgarria, erakargarria, dibulgatzailea

Kontzeptu artistikoen, historikoen eta ondarezkoen lurraldearekiko berrikuspena

Garrantzizkoa dena hartu kontuan, ez guztia. Hoberena onenaren etsaia da

Neurri praktikoak eta berritzaileak hartzea

Tokikoa denetik unibertsala denera, orainetik etorkizunera

Didaktikoa / eraginkorra, errealista / nortasunak barnean hartzen dituena / kulturaren balio publikoa

Zehaztasuna, kalitatea, oreka, epe luzea

Emozionala, hotza izan ez dadila, jendeak propiotzat sentitu dezala

Iraunkorra haren fase guztietan zehar eta haren jarraitutasuna aurreikustea aurrekontu-konpromisoen bitartez

Garrantzizkoa den horretan erreparatu, ez guztian. Ho-

Xehatua-erakargarria

Erdiets daitekeena

Nerabeei eta gazteei arreta berezia

Ardatza giza eskubideetan jartzea, sustapena eta irismen unibertsala

Kultura gizarte-eraikuntza da

Xumetasuna / praktikotasuna / eragile gauzatzaileei ekintzak ikustaraztea / irisgarritasuna

Beste plan batzuekin lotzen den Ikuspegi holistikoa (hezkuntza, ingurumena, turismoa, …)

Plana maila guztietan jakinaraztea, herritar guztiengan hel dadin (komunikazio ulergarria)

Desgaitasun, kognitiboa, entzumenezkoa,bisuala eta fisikoa duten pertsonentzako irisgarria

Kultura diziplina guztietan barneratzea

Aukera berdintasuna, begirunetsua

Elkarbizitza eta aniztasunaren sustapena

Planaren arrazoien adierazpena / garatu beharreko balioak nortasun nafartarratik abiatuz

## Planak barnean hartu behar dituen begirada integratzaileak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Kulturaren ikuspegi historikoa eta antropologikoa jaso | Memoria historikoa eta talde gutxituekin dagoen zorra kontuan hartu | Begirada feminista kontrastatzeko eta berdintasuna erdiesteko | Begirada zabala, mugarik gabekoa, sektore guztiak barnean hartzen dituena: kultura, ekonomia, ... |
| Tokikoa denetik globala denera, batasun zentzuarekin eta gurea denarekiko begirunez | Profesionalak balioztatzea eta aintzatestea (edozein eremutakoak) eta haien irizpidea entzutea | Nazioarteko ikuspegia | Deszentralizazioa eta unibertsalizazioa, kultura guztiontzat |
| Begirada lurraldeari erreparatuz | Begirada parte-hartzailea | Umeen eta gazteen partaidetza lortu, horrela etorkizuna landuz | Unibertsitatearen begiradan oinarritu, sektorerako intereseko ikerkuntzak egin baititzake |
| Artista gazteen, kredo, idei eta bizitza guztietako heldu eta nagusien eta desgaitasun duten pertsonen partaidetza | Zeharkakotasuna / Kultura-aniztasuna / Hibridazioa | Pertsona guztientzako irisgarri den eskaintza | |

# 4. Adarrak

## Ardatzak eta ekintzak Nafarroan kultura indartzeko […]

**Zuhaitzaren enborretik jaio eta honekin konektatzen diren zatiak dira adarrak.**
Zuhaitzaren elikagaiak adarretatik zehar zirkulatzen dira, pixkanaka hostoak eta fruituak kimatzen dituztelarik.

Adarrak gure zuhaitz-planaren ardatz estrategikoak dira eta horien bitartez Nafarroako kultura garatuko duten jarduketak jarriko dira abian. Kapitulu honek ardatz horiek aurkezten ditu.

## 4.1.- Planaren adar estrategikoak

Nafarroako kultura eta sormenaren egungo egoeraren diagnostikotik eta partaidetza-prozesuan zehar kultura eta arte eragileengandik eta herritarrengandik jasotako jarduketa-ildoen proposamenetatik abiatuta, emaitzak aurkezten dira 10 ardatz estrategikotan antolaturik. Hauek, Ekintza-plana osatzen dute eta baita jarduketa-ildoak eta jardueren egutegia biltzen ditu ere.

1. KOHESIOA, ANIZTASUNA ETA LURRALDE DINAMIKAK
2. INFORMAZIOA, EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA SORMENA
3. ENPLEGUAREN KALITATEA
4. SENTSIBILIZAZIOA, PARTAIDETZA ETA HIRUGARREN SEKTOREA
5. FINANTZAKETA
6. KULTURAREN ZEHARKAKOTASUNA ETA HIBRIDAZIO ESTRATEGIKOAK
7. KULTURA-ESKAINTZAREN IKUSGAITASUNA ETA ANIZTASUNA
8. EKIPAMENDUAK: IRISGARRITASUNA ETA BALIABIDEAK
9. KULTURA-SEKTOREAK ETA BALIO-KATEA
10. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK

# 1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOHESIOA, ANIZTASUNA ETA LURRALDE DINAMIKAK

## 1. Ardatzaren erronkak:

KOHESIOA ETA NAFARROAKO LURRALDEEN ANISTASUNA SENDOTZEA KULTURA ETA SORMEN EREMUAN

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E1.L1) LURRALDE-KOORDINAZIORAKO FOROAREN ERAKETA ETA HORREN DINAMIZAZIOA SUSTATU

(Kode-E1.L2) LURRALDEKO TOKIKO ERAKUNDEEN ARTEKO BALIABIDEEN KUDEAKETA ARDURATSURA BIDERATUTAKO EKIMENAK BULTZATU, GIZARTE ETA LURRALDE OREKAREN ESPARRUAN.

(Kode-E1.L3) NAFARROAKO LURRALDEKO KULTURA-KOHESIOA SUSTATU. NAFARROAKO LURRALDEA OSATZEN DUTEN TOKIETAKO KULTURA ETA SORMEN BEREZITASUNA INDARTU ETA IKUSGAI BIHURTU.

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E1.L1) LURRALDE-KOORDINAZIORAKO FOROAREN ERAKETA ETA HORREN DINAMIZAZIOA SUSTATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Hausnarketa eta topaketa gunearen eraketa sustatzea, non toki-erakundeek parte hartuko bailukete Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, kultura-politikak koordinatzeko eta tokiko erakundeekin elkarlana sustatzeko, erantzunkidetasuneko eremu batean.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Hausnarketa, Koordinazio eta Lurralde dinamizaziorako Foroa sortzea toki-erakundeekin, iraunkorra, Nafarroako errealitate anitzei eta gai askotarikoei erantzuten diena, Nafarroako Udalerrien Biltzarrarekin eta Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean.(Kode.E1.L1.A1)



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E1.L2) LURRALDEKO TOKIKO ERAKUNDEEN ARTEKO BALIABIDEEN KUDEAKETA ARDURATSURA BIDERATUTAKO EKIMENAK BULTZATU, GIZARTE ETA LURRALDE OREKAREN ESPARRUAN.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Toki- erakundeek kultura eremuan egiten duten lana sendotzea, orientazioa eta laguntza eskainiz behar dituzten arloetan; elkarlana, interakzioa eta zerbitzu erkidetuak sustatzea, kostuak murrizteko eta eskalako ekonomiak ezartzeko xedearekin; erreferentziako kultura-ekimenak Nafarroa osoan zehar zabaltzea, herritarren arteko gizarte-oreka bultzatuz. Lan-ildo hau lurralde-koor*dinaziorako foroarekin lotuta dago. (Kode-E1.L1)*

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Tamaina txikiagoko udaletan kultura zerbitzu erkidetuen garapena sustatzea, hango teknikoei laguntza eta aholkularitza eskaintzeko hainbat gaitan (programazioa, kontratazioa, agirien idazketa, hedapena –community manager...-, zirkuituen garapena, diagnostikoen eraketa, jarduketa-planak, etab.) komunitatea partaide eginez inguruneko funtsezko eragile gisa. *(Kode.E1.L2.A1)*

2. EKINTZA: Nafarroako erreferentziazko zentroen eta Foru Erkidego osoan zehar kokaturiko beste zentroren artean espazio lagunen sarea sortzea, erreferentziazko zentroen “antena” gisa joka dezaten eta, horrela, sorkuntza-, produkzio-, ikerketa-, erakusketa-ekimenak, etab. zabalduz eta horien eragina lurralde osoari eta herritar guztiei hel diezazkien. *(Kode.E1.L2.A2)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | | Abian jarri | Zerbitzuen garapena | | | |
| 2.ekintza | | Abian jarri | Garapena eta lankidetza-akordioak | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da — Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E1.L3) NAFARROAKO LURRALDEKO KULTURA-KOHESIOA SUSTATU. NAFARROAKO LURRALDEA OSATZEN DUTEN TOKIETAKO KULTURA ETA SORMEN BEREZITASUNA INDARTU ETA IKUSGAI BIHURTU..

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Toki bakoitzeko kultura eta ondare material eta immaterialaren berezitasuna balioan jartzea, eta baita landa-kultura eta Nafarroako lurraldean kohesio osagarri gisa jokatzen duen elkarte sarea, jarduketa-ildo hauek garatzen dituzten beste erakunde eta entitateekin elkarlanean (toki-entitateak, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, kultura elkarteak, Fundazioak, tokiko garapen--agentziak, etab.)

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nafarroako lurraldeen kultura-nortasuneko ezaugarriak identifikatu, indartu, bereiztu eta balioan jartzeko estrategiak garatzea, ezaugarri horiek gainerako lurraldearekiko eta kanpoarekiko duten proiekzioan osagai bereizgarri bihurtuz. Toki bakoitzeko kultura, haren berezitasunak eta idiosinkrasia (bakarkakoa eta taldekoa) ezagutzera ematea laguntzean datza: bere ondare edo eta sormena aintzatestea; eta toki bakoitzaren berezitasunei moldatutako hedapen-estrategiak laguntzea, beste sail edo erakunderekin elkarlanean (turismoa, industria, ingurumena, etab.). *(Kode.E1.L3.A1)*

Honetarako, premiak eta estrategiak haute*mateko* eta lurraldearen aniztasuna kontuan hartuz, merindadeak bisitatzeko lurralde mailako bilera-plana osatuko du Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak.




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin harremana | Beste arloekin lotura | Baterako estra-tegien garapena | | | | |



## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Nafarroako landa-kulturaren adierazpenak berreskuratzea eta balioan jartzea eta hiria eta landa elkartzeko osagarri gisa erabiltzea, komunitate- kultura eta landa eremuko berrikuntza bultzatuz, eta ondarearekin gain, kultura eta arte sektoreekin lotuz. (Kode.E1.L3.A2)




## Nola garatuko da ildo hau?

3. EKINTZA: Nafarroako elkarte-sarea balioan jartzea lurraldearen kohesio eta dinamikaren funtsezko osagarri gisa, eta baita komunitateak kultura-partaidetzan duen inplikazio eta mintzaide gisa ere (sormena, kultura praktika, etab.). (Kode.E1.L3.A3)



# 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INFORMAZIOA, EZAGUTZA, BERRIKUNTZA ETA SORMENA

2. Ardatzaren erronkak:

NAFARROAKO KULTURA ETA SORMENAREN EGOERA ETA BILAKAERAREN INFORMAZIO ETA JARRAIPEN SISTEMA EZARTZEA ETA PLAN ESTRATEGIKO ETA SEKTORIALAK ETA BAITA EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAK ERE EGITEA.

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E2.L1)- NAFARROAKO KULTURA BEHATOKIAREN SORRERA BULTZATU

(Kode-E2.L2)- NAFARROAKO KULTURA ETA SORMEN SEKTOREEI BURUZKO EZAGUTZA ZABALDU ETA EGUNERATU

(Kode-E2.L3)- BERRIKUNTZA ETA SORMENA GARATZEKO SORMEN-INGURUNEAK SUSTATU

(Kode-E2.L4)- UNIBERTSITATEEN ZEREGINA INDARTZEA LURRALDEAREN KULTURA ETA SORMENAREN INGURUKO IKERKUNTZA GARATZEKO

(Kode-E2.L5)- SORMEN-LANTEGIEN SORRERA BULTZATU

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E2.L1) NAFARROAKO KULTURA BEHATOKIAREN SORRERA BULTZATU.

### Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Nafarroako kultura eta sormen sektoreei buruzko ezagutzan sakontzea, eta Nafarroako kultura eta sormen arloarekin lotutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboa sistematizatzea, hala nola:

- Kultura politikak eratzen eta erabakiak hartzen laguntzen duena,
- Joerak, beste sektoreekiko harremana, etab. ikertzen duena,
- Nafarroan zein Nafarroatik kanpo egiten diren jarduera egokiak eta esperientziak identifikatzen dituena
- Kultura eta sormen eremuko publikoen ezagutza sustatzen duena

Honez gain, informazio honek genero ikuspegia hartuko du kontuan bere jardueran (sexuaren araberako estatistikak, txostenak idazterakoan hizkuntza ez sexistaren erabilera, etab.), eta gaztelania eta euskararen erabilera hedapenean, etab. Nafarroako Estatistika Erakundearen eta sektoreen informazioari eta ezagutzari ekarpenak egin eta lagundu dezaketen beste entitate edo erakunderen (Euskarabidea, etab.) elkarlana.

### Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nafarroako Kultura Behatokia diseinatu eta eratzea. *(Kode.E2.L1.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hasiera eta abian jartzea | | Egitura sendotzea | | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da — Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Kultura eta sormenaren ekosistemaren baliabideen katalogoa progresiboki eratzea, mapak, erregistroak, datu-baseak, etab. biltzen dituena eta herritarrek eskuragarri dutena. Katalogoan emakumearen ikusgaitasunari bereziki erreparatuz. (*Kode.E2.L1.A2*)

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baliabide kulturalen mapa | x | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E2.L2) NAFARROAKO KULTURA ETA SORMEN SEKTOREEI BURUZKO EZAGUTZA ZABALDU ETA EGUNERATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura eta sormenaren inguruko txosten estrategikoak, liburu zuriak eta inpaktu-, ebaluazio-txostenak eta txosten sektorialak etab., eratzea, tartean dauden sektoreen administrazio eta eragileekin koordinatuz, eta genero ikuspegia informazioaren trataeran txertatuz.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura eta gazteriari buruzko diagnostikoa egitea haien premiak eta kultura kontsumoaren ereduak identifikatzeko. *(Kode.E2.L2.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | x | | | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Kultura eta sormenaren ekosistemen mapeoa egitea. *(Kode.E2.L2.A2)*

| Ilberria | | ilgora | | ilbetea | ilbehera | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
| x | x | | | | x | x |
| Izerdiaren isuria sustraietan | | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da | |

## Nola garatuko da ildo hau?

3. EKINTZA: Nafarroako asoziazionismoaren eta sektore amateurraren egoeraren diagnostikoa egitea. *(Kode.E2.L2.A3)*

| Ilberria | | ilgora | | ilbetea | ilbehera | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
| | Asoziazionismoari buruzko ikerketa egitea Nafarroan (elkarteak, praktika amateurrak, etab.) | | | | x | x |
| Izerdiaren isuria sustraietan | | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da | |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E2.L3) BERRIKUNTZA ETA SORMENA GARATZEKO SORMEN-INGURUNEAK SUSTATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura, sormena eta berrikuntza udalerrietako giroan eta bizitza sozialean presente egotea, espazio publikoak eta ez-ohikoak erabiliz, horrela testuinguru eta ingurune ohikoenak gaindituz.

Berrikuntza eta sormena guztientzat eskuragarri izatea erraztean datza, tokiko kultura, komunitatearen partaidetza, etab. ikusgai bihurtzeko bide berriak irekiz.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Toki-erakundeekin hitzarmenak sustatzea sormen ingurune eta testuinguru berrien sorrera bultzatzeko, irisgarriak direla kontuan hartuz. *(Kode.E2.L3.A1)*

| Ilberria | | ilgora | | ilbetea | | ilbehera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
| | x | | | | x | x |

Ilberria: Izerdiaren isuria sustraietan

ilgora: Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

ilbetea: Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

ilbehera: Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Kultura eta sormenarekin lotutako elkarrekin kudekatutako espazioei edo auto-kudeatuei buruzko ikerketa zehatza egitea, irisgarritasunaren aldagaia barne hartzen duena. *(Kode.E2.L3.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | | | | | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E2.L4) UNIBERTSITATEEN ZEREGINA INDARTZEA LURRALDEAREN KULTURA ETA SORMENAREN INGURUKO IKERKUNTZA GARATZEKO.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Lurraldeko kultura eta sormen arloaren ikerkuntza bultzatzeko Nafarroako Unibertsitateen elkarlana sustatzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Hausnarketa-ildoak eta elkarlana sustatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Smart Cities Institutuaren Ekonomia Sailaren artean, kultura eta sormen industrien inpaktu ekonomikoari ekiteko. (Kode-E2.L2*rekin lotuta*). *(Kode.E2.L4.A1)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | x | | | | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Nafarroako Industria Elkartearekin, Nafarroako Unibertsitatearekin eta Belgikako Nafarroako Delegazioarekin batera lan egitea Europako Batzordearen Enterprise Europe Network (EEN) sareak sustatutako Europa+Cerca Ibilbidea bultzatzeko. *(Kode. E2.L4.A2)*




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | x | | | | x | x |

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E2.L5) SORMEN-LANTEGIEN SORRERA BULTZATU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Nafarroan berrikuntza kulturala, sormena eta arte-ikerketa mugiaraztea.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Industria Departamentuaren eta beste eragile batzuen laguntzarekin batera, Nafarroan Sormen-lantegiak sortzeko proiektua garatzea, hibridazioaren kultura sustatuz. *(Kode.E2.L5.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | x | | | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

# 3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ENPLEGUAREN KALITATEA

3. Ardatzaren **erronkak:**

KALITATEZKO ENPLEGUA BULTZATZEA ETA KULTURA SEKTOREAN LANBIDEA DUIN BIHURTZEA, PROFESIONALEN BALIOA ETA BIZI KALITATEARI, GIZARTEAREN ONGIZATEARI ETA LURRALDEAREN ABERASTASUNARI EGITEN DIOTEN EKARPENA AINTZATETSIA IZAN DADIN.

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E3.L1)- KULTURA ETA SORMEN EREMUAN LANEAN ARI DIREN PERTSONEN LAN-BALDINTZEN HOBEKUNTZA SUSTATU

(Kode-E3.L2)- KULTURA ETA SORMEN EREMUAN PROFESIONALIZAZIOA ETA BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZA LAGUNDU

(Kode-E3.L3)- KULTURA ETA SORMEN EREMUKO PROFESIONALEI ETA AURRE-PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA SORTU

(Kode-E3.L4)- PROFESIONALEN ETA PROIEKTUEN PLATAFORMA BIRTUALAREN ERAIKUNTZA BULTZATU

(Kode-E3.L5)- LANBIDE-PROFIL BERRIEN ETA SORTUBERRIEN SORKUNTZA SUSTATU

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E3.L1) KULTURA ETA SORMEN EREMUAN LANEAN ARI DIREN PERTSONEN LAN-BALDINTZEN HOBEKUNTZA SUSTATU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Kultura eta sormen eremuan lanean ari diren pertsonen lan-egoeraren hobekuntza sustatzea. Enpleguan genero ikuspegiari arreta berezia jarriz. (kontziliazioa, ikusgaitasuna, etab.)

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Funtzio Publikoarekin (Lehendakaritza Departamentua) eta tokiko erakundeekin irekitako elkarlan-ildoarekin jarraitzea, administrazioetan lanean diharduten eta ordutegien, lanaldien, behin behinekotasunaren eta abarren aldetik egoera ahulena duten pertsonen lan-baldintzak hobetzea. *(Kode.E3.L1.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: "Artistaren estatutua" sustatzea Kultura-eskubideen Foru Legearen eremuan. *(Kode.E3.L1.A2)*

3. EKINTZA: Kultura-kudeaketako profesionalei zuzendutako "Jarduera egokien gida" beste eragileekin elkarlanean egitea, kontratazioetan enpleguaren kalitatezko irizpideak eta baita diskriminazio positiboko neurriak/hobariak ezar ditzaten emakumeak, desgaitasuna edo aniztasun funtzionala duten pertsonak, etab. kontratatzerakoan. *(Kode.E3.L1.A3)*

4. EKINTZA: Kontratazio publikoetan eskakizun zehatzak ezartzea, proiektuetan parte hartuko duten pertsonek indarrean dagoen lan-auraudia beteko dutela bermatzeko asmoarekin (lan-kontratua edukiko dute, Gizarte Segurantzan alta emanda egongo dira, etab.). *(Kode.E3.L1.A4)*

| Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera |
|---|---|---|---|
| Izerdiaren isuria sustraietan dago | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |
| 3.ekintza | | x | | x | x | x | x |
| 4.ekintza | | x | | x | x | x | x |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E3.L2) KULTURA ETA SORMEN EREMUAN PROFESIONALIZAZIOA ETA BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZA LAGUNDU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Ikaskuntza- eta prestakuntza-ibilbideak, planak eta ekimenak indartu edo eta garatzea, bai administrazioko bai profesionalen sektoreko pertsonei zuzendutakoak, haien gaitasun profesionalak garatzea ahalbidetuko dutenak ondorengo gaietan: haien jarduera-adarreko gai zehatzak/teknikoak, eta zeharkako gaiak (berdintasuna, kudeaketa, zerga-sistema, diru-laguntzen eskaera, kontratazioa, merkaturatzea, irisgarritasuna, desgaitasuna duten pertsonekin interakziorako tailerrak etab.).

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura eta sormenaren ekosistemetako profesionalei zuzendutako prestakuntza-eskaintza indartzea, eta kalitatezko prestakuntza eraikitzearen alde lan egitea.*(Kode.E3.L2.A1)*
Koordinazio-forora elkartzea. *(Kode.E1.L1.A1)*

Ilberria — Izerdiaren isuria sustraietan
ilgora — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da
ilbetea — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da
ilbehera — Izerdiaren isuria jaisten da

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Navarra cultural Think tank | | | | x | x | x | x |

## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Zerbitzutik (espezifikoa) eta NAPItik (zeharkakoa) Administrazio Publikoko langileei zuzendutako prestakuntza-eskaintza indartzea). *(Kode.E3.L2.A2)*

**3. EKINTZA:** Lurraldean eskaintzen ez diren kalitatezko prestakuntza-ekimenetara profesionalak joan daitezela errazteko laguntza-ildoak sustatzea (bekak, laguntza-poltsak, etab.). *(Kode.E3.L2.A3)*

**4. EKINTZA:** Nafarroako kultura eta sormen eremuko erreferentziazko pertsonen ezagutzaren transferentzia eta adinaren kudeaketarako bideak bultzatzea:

- Kultura eta sormen eremuko pertsona aipagarrienetakoen bizitza-historien erregistroa egitea
- Nafarroako ondare immaterialarekin Museo Zerbitzua egiten ari den lanarekin jarraitzea
- Ezagutza elkar trukatzeko dinamikak sortzea belaunaldi ezberdinetako pertsonen artean (senior/junior/ikasleak); hortaz, esperientzia gutxiago duten pertsonek onurak jasoko lituzkete ibilbide luzeagoa dutenen ezagutzatik.
- Hezkuntza departamentuarekin elkarlanean, hezkuntza zentroetara pertsona kualifikatuen bisitak antolatzea, zaletasunak esperientzien transmisioaren bitartez pizteko. *(Kode.E3.L2. A4)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | x | x | | x | x | x | x |
| 3.ekintza | | | x | x | x | x | x |
| 4.ekintza | | x | x | x | x | x | x |



## Nola garatuko da ildo hau?

5. EKINTZA: Nafarroako pertsonen talentua erakartzea. Sektoreko eragileen laguntzarekin, kultura eta sormen eremuko Nafarroako Foru Erkidegotik kanpo bizi diren erreferentziazko pertsonak identifikatzea, eta haien talentua, esperientzia eta ezagutza Nafarroan dauden beste profesionalekin partekatzera gonbidatzea kultura-ekimenetan eta ekitaldietan (948Merkatua, jaialdiak, etab.) antolatutako hitzaldien, erakusketen, tailerren, master class-en eta abarren bitartez. *(Kode.E3.L2.A5)*

6. EKINTZA: Hezkuntza Departamentuarekin lan-ildo bat sustatzea, kulturarekin eta artearekin lotutako goi eta erdi-mailako ikasketak eta titulazioak dauden hezkuntza-zentroetan abian jartzeko xedearekin. Lehen mailako profesional nafartarrak berreskuratzea irakasle gisa jardun dezaten, haien ezagutza eta esperientzia transferituz. *(Kode.E3.L2.A6)*

7. EKINTZA: Kultura baliabideak, jarduerak edo ekitaldiak diseinatzen, planifikatzen eta kudeatzen dituzten era guztietako profesionalentzako derrigorrezko erreferentzia gisa balio duen irisgarritasun unibertsalari eta kultura ondasun eta zerbitzuei buruzko gidaliburu bat egitea. *(Kode.E3.L2.A7)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5.ekintza | | x | x | x | x | x | x |
| 6.ekintza | | x | x | x | x | x | x |
| 7.ekintza | | x | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E3.L3) KULTURA ETA SORMEN EREMUKO PROFESIONALEI ETA AURRE-PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA ZERBITZUA SORTU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Nafarroako kultura eta sormen sektorean diharduten pertsonentzako zerbitzu espezifikoa sortzea, hainbat gaitan orientazioa, aholkularitza eta laguntza eskainiko duena: diru-laguntzak, programak, espazioak, erreferentziazko tokiak eta pertsonak, kudeaketak egiteko/informazioa bilatzeko nora jo behar da, prestakuntza eta ekintzailetza, nazioartekotzea, etab.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura eta sormen eremuan diharduten pertsonei zuzendutako orientazio eta aholkularitza zerbitzua sortzea. (*Kode.E3.L3.A1)*

2. EKINTZA: "coacher" espezializatuen bankua sustatzea (hainbat eremutan esperientzia kontrastatua duten funtsezko profesionalak), premia espezifikoak dituzten beste profesionalei aholkularitza emateko (nazioartekotza, banaketa, sorkuntza prozesuak, ekoizpen-prozesuak, administrazio-kudeaketa, restakuntza-aukerak, irisgarritasuna, etab.). *(Kode.E3.L3.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | | Bideragarritasuna | x | x | x | x |
| 2.ekintza | | | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E3.L4) PROFESIONALEN ETA PROIEKTUEN PLATAFORMA BIRTUALAREN ERAIKUNTZA BULTZATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Profesionalen eta proiektuen arteko topaguneak baterako sorkuntza laguntzea, kultura eta sormen eremuan eta baita beste jarduera ekonomiko eta sozialetan ere sinergiak sortarazteko xedearekin.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Informazio-ezagutza-sektorearen konexiorako tresna birtualaren sorrera sustatzea, sektore barruan eta sektore ezberdinen arteko gune egituratzaile gisa jokatzen duena. Kultura eta sormen sektore bakoitzeko pertsona profesionalen eta, batez ere, abian dituzten proiektuen erregistroa jasoko du gune dinamiko horrek, proiektuen/profesionalen arteko elkarlana bultzatzeko, lotura profesionalak ezartzeko, elkarlaneko dinamikak sortzeko, etab. asmoarekin.
Hasierako bi unetan garatuko den ekintza: tresna eraikitzeko prozesuaren bideragarritasuna aztertuko duen Ikerketa-Diagnostikoa eta plataforma-ereduaren lizitazioa.
*(Kode.E3.L4.A1)*




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bideragarritasun diagnostikoa | Plataforma-ereduaren lizitazioa | x | x | x | x |



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E3.L5) LANBIDE-PROFIL BERRIEN ETA SORTUBERRIEN SORKUNTZA SUSTATU

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Merkatuak eskatzen dituen kultura eta sormen eremuko lanbide-profil berriak hautematea, horien gaitasun eta prestakuntza-ibilbideen garapena sustatzea. Halaber, sektorean ekintzailetza zeharka garatzea. Nafarroako Enplegu Institutuarekin, Hezkuntza Departamentuarekin eta Industria Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean garatu da ardatz hori.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nafarroako Enplegu Institutuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanarekin jarraitzea, kulturaren inguruko lanbide-profil berrien sorrera bultzatzeko: kultura-bitartekotza, kultura-turismoa, ondare-birgaitzea eta bestelako okupazio-joerak. *(Kode.E3.L5.A1)*



## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Ekonomia Zuzendaritza Nagusiarekin, Industria Zuzendaritza Nagusiarekin eta Nafarroako beste eragile batzuekin elkarlana mantentzea, sektorea profesionalizatzeko xedearekin. Profesionalizazio hori ekintzaileetzaren bitartez landuko da, lanbidearen iraunkortasuna hobetzeko, zaletasun berriak bultzatzeko eta talentua garatzeko asmoarekin. *(Kode.E3.L5.A2)*

3. EKINTZA: Ekintzaletza garatzen jarraitzea RIS3 proiektuaren eremuan. *(Kode.E3.L5.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | x | x | | x | x | x | x |
| 3.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |

# 4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: SENTSIBILIZAZIOA, PARTAIDETZA ETA HIRUGARREN SEKTOREA

4. Ardatzaren **erronkak:**

HERRITARREN ETA KULTURA ETA ARTE ERAGILEEN PARTAIDETZA BULTZATZEA NAFARROAKO KULTURA-POLITIKEN GARAPENEAN; SEKTORE PROFESIONALA ETA AMATEURRAREN ARTEKO LOTURA SENDOTZEA; NAFARROAKO GIZARTEAREN KULTURA ETA ARTEAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEA.

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E4.L1)- HERRITARREN PARTAIDETZA INDARTZEN DUTEN EKIMENAK SENDOTU ETA/EDO GARATU

(Kode-E4.L2)- SEKTORE PROFESIONAL ETA DAGOEN ELKARTE-SARE ZABALAREN ARTEKO LOTURA ETA SINERGIEN ALDE LAN EGIN

(Kode-E4.L3)- KULTURA ETA SORMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA BULTZATU ETA PUBLIKOAK ERAKARRI ETA FIDELIZATU

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E4.L1) HERRITARREN PARTAIDETZA INDARTZEN DUTEN EKIMENAK SENDOTU ETA/EDO GARATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Herritarrak, eta bereziki gazteak, kultura proiektuen partaide izateko mekanismoak martxan jartzea, sormen-, produkzio-prozesuetan, etab. kontsumitzaile pasibotik partaide aktibo izatera aldatzen lagunduz; herritarrek kulturan duten protagonismoa eta kultura-dinamikak eraldatzeko duten indar potentziala sendotuz.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Lurralde-koordinazio eta dinamizazio foroaren eremuan, *(Kode. E1.L1.A1), kultura* politikak birpentsatzeko elkar-hausnarketarako espazioak zabaldtzea (online), non herritarrek eta kultura eta arte eragileen komunitateek partaidetza aktiboa izango baitute. *(Kode.E4.L1.A1)*

2. EKINTZA: Giza eta kulturaren erantzunkidetasun neurrien bitartez, proiektu eta artisten arteko loturan sakontzen jarraitzea, 8/2014 Foru Legearen eremuan, maiatzaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituena. *(Kode.E4.L1.A2)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | Foro/espazioen diseinua eta garapena | | | | | |
| 2.ekintza | x | x | | | | | |



## Nola garatuko da ildo hau?

**3. EKINTZA**: 11/2012 Foru Legearen eremuan, ekainaren 21ekoa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa, kultura eta arte eragileen eta herritarren partaidetza planak sendotzea kulturaren inguruko hitzaldia elkarrekin eratzeko.
*(Kode.E4.L1.A3)*

**4. EKINTZA**: Kultura-politiketan gazteen partaidetza aktiboa areagotzen eta errazten dituzten ekimenak bultzatzea. *(Kode.E4.L1.A4)*

**5. EKINTZA**: Kultura boluntariotza eta lankidetza-ekonomia gazteen artean sustatzea.
*(Kode.E4.L1.A5)*

**6. EKINTZA**: Desgaitasuna duten pertsonen partaidetza sustatzea.
*(Kode.E4.L1.A6)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | x | x | | | | | |
| 4.ekintza | | x | | | | | |
| 5.ekintza | | x | x | | | | |
| 6.ekintza | | x | x | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E4.L2) SEKTORE PROFESIONAL ETA DAGOEN ELKARTE-SARE ZABALAREN ARTEKO LOTURA ETA SINERGIEN ALDE LAN EGIN.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura-politiketan kultura eta arte eragile profesionalen eta amateurren partaidetza sustatzea, eta bien arteko topaketa puntuak ezartzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Lurralde Koordinazio eta Dinamizazio Foroaren eremuan *(Kode. E1.L1.A1)*, sektorearen arteko (profesionala eta amateurra) etengabeko elkarrizketa mantentzea, eta baita horrek administrazio desberdinekin duena ere, bere mintzaide-ahalmena sendotuz. *(Kode.E4.L2.A1)*

2. EKINTZA: Nafarroako asoziazionismoaren ikerketa konparatzailea *(Kode. E2.L2. A2)* enpresak/profesionalak eta zaleen arteko lankidetza-bideak bilatzen lagun dezakeena.
*(Kode.E4.L2.A2)*

| Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera |
|---|---|---|---|

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | x | x | | | | |
| 2.ekintza | | Asoziazionismoari buruzko ikerketa egitea Nafarroan (elkarteak, praktika amateurrak, etab.) | | | | | |

| Izerdiaren isuria sustraietan dago | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da |
|---|---|---|---|

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E4.L3) KULTURA ETA SORMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA BULTZATU ETA PUBLIKOAK ERAKARRI ETA FIDELIZATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Garapen intelektuala, ekonomikoa eta baita giza-garapenerako kulturak eta sormenak duten balioa eta garrantzia gizartean zabaltzea; kultura eta sormenaren publikoak erakarri eta garatzea, epe luzera horien garapena eta iraunkortasuna laguntzeko.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Publikoak sortzeko/indartzeko planak bultzatzea, lurralde-eremu bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen direnak eta biztanleen aniztasunari erantzuten diotenak (gazteak, familiak, desgaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, kolektibo gutxietsiak, mugikortasun zailtasunak dituzten pertsona nagusiak, etab.). *(Kode.E4.L3.A1)*

2. EKINTZA: Publikoekin kultura-bitartekotzarekin lotutako ekintzak sustatzea: master class, hitzaldiak, artistekin topaketak/bisita gidatuak, entsegu irekiak, sormen tailerretara bisitak, prozesuetan parte hartzea, etab. *(Kode.E4.L3.A2)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | | X | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

3. EKINTZA: Hezkuntza Departamentuarekin batera, sentsibilizazio programak/ ekimenak bultzatzea kultura-jarduera eskoletara hurbiltzeko eta baita eskolak kultura-espazio eta -testuinguruetara hurbiltzeko. Kulturaren balioa umeei txikitatik erakusten dioten ekimenak bultzatzea, genero ikuspegitik. *(Kode. E4.L3.A3)*

4. EKINTZA: Gai kulturaletan espezializatutako gida eta unitate didaktikoak (aniztasun kulturala, antzerkia, dantza, etab.), programak, eduki eta tresna pedagogikoen garapena bultzatzea, Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin, genero ikuspegia, euskararen erabilera, teknologia berrien erabilera, etab. txertatuz.
*(Kode.E4.L3.A4)*

5. EKINTZA: Nafarroako Emakumearen Erakundearekin batera familia, haurtzaro eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta martxan jartzea. Helburua, hauen bidez, haurrek, nerabeek eta gazteek praktikatzen dituzten kultura-jardueretan estereotipo sexisten aurka eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egitea da.
*(Kode.E4.L3.A5)*

6. EKINTZA: Sentsibilizazio kanpainak diseinatzea eta egitea, kolektibo ahulen estereotipoak hausteko, kontuan hartuz ere desgaitasuna duten pertsonak.
*(Kode.E4.L3.A6)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | x | x | | | | | |
| 4.ekintza | x | x | | | | | |
| 5.ekintza | x | x | | | | | |
| 6.ekintza | x | x | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

# 5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: FINANTZAKETA

5. Ardatzaren **erronkak**:

EKIMENAK FINANTZATZEKO FORMULA BERRIAK AZTERTZEA KULTURA ETA SORMEN EREMUAN, HAREN GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA LAGUNTZEKO.

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E5.L1)- FINANTZAKETA-FORMULA BERRIAK BULTZATU, 8/2014 FORU LEGEAREN EZAGUTZAREN BITARTEZ, MAIATZAREN 16KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN KULTUR MEZENASGOA ETA HAREN ZERGA-PIZGARRIAK ARAUTZEN DITUENA

(Kode-E5.L2)- BIZTANLE BAKOITZEKO KULTURAN GASTATZEN DEN BATEZ BESTEKO KOPURUA EUROPAKO ERREFERENTZIAZKO HERRIALDEETAKOETARA HURBILDU

(Kode-E5.L3)- DIRU-LAGUNTZEN POLITIKA BERRIKUSI, SEKTOREAREN ERREALITATERA EGOKITZEKO

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E5.L1) FINANTZAKETA-FORMULA BERRIAK BULTZATU, 8/2014 FORU LEGEAREN EZAGUTZAREN BITARTEZ, MAIATZAREN 16KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN KULTUR MEZENASGOA ETA HAREN ZERGA-PIZGARRIAK ARAUTZEN DITUENA.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

8/2014 Foru Legeak, maiatzaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituena, eskaintzen dituen finantzaketa-aukerak garatu eta ezagutzera ematea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: 8/2014 Foru Legearen hedapena, ulertzea eta eskaintzen dituen aukerak hobetzea, legearen arabera onuradunak diren pertsonekin kultura-bitartekotza bultzatuz. *(Kode.E5.L1.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | x | | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Lankidetza/Mezenasgoa eskatzen duten pertsonen eta mezenas gisa joka dezaketen enpresen edo kolektiboen arteko lotura erraztea. *(Kode.E5.L1.A2)*

3. EKINTZA: Enpresen kultura-erantzunkizuna bultzatzea, XXI. mendeko mezenas gisa. *(Kode.E5.L1. A3)*

| Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera |
|---|---|---|---|
| Izerdiaren isuria sustraietan dago | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | X | X | | x | x | x | x |
| 3.ekintza | | X | X | x | x | x | x |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E5.L2) BIZTANLE BAKOITZEKO KULTURAN GASTATZEN DEN BATEZ BESTEKO KOPURUA EUROPAKO ERREFERENTZIAZKO HERRIALDEETAKOETARA HURBILDU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kulturan gastatzen den kopurua gehitzeko neurriak bultzatzea eta Nafarroa Europako erreferentziazko herrialdeen mailan kokatzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nafarroako Kultura Behatokiaren bitartez eta kulturaren kontu satelite gisa, Nafarroan kulturan gastatzen den diru-kopuruaren adierazle nagusiak eta horien bilakaera zehatz-mehatz ezagutzea eta, lortutako emaitzetatik abiatuz, gomendioak ematea Europako erreferentziazko herrialdeetara hurbiltzeko asmoarekin. *(Kode.E5.L2.A1)*




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | x | x | x | x | x |



**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E5.L3) DIRU-LAGUNTZEN POLITIKA BERRIKUSI, SEKTOREAREN ERREALITATERA EGOKITZEKO.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Diru-laguntzen politika kultura eta sormen sektorearen errealitateari egokitzea, bere eraginkortasuna hobetzeko asmoarekin.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Diru-laguntzen politika berrikusten jarraitzea, hutsune/gabezia posibleak hautemateko eta horiek zuzentzeko dagozkion neurriak hartu ahal izateko (egutegiak kulturaren erritmoetara egokitu, prozedura sinplifikatu, diru-hornidurak zuzen banatu, tokiko erakundeen logikarekin bat datozen baremazio-irizpideak ezarri, etab.). *(Kode.E5.L3.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | x | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Berdintasunerako Nafarroako Institutuarekin elkarlanean, berdintasuneko irizpideak sartzea kontratazioen oinarrietan, hitzarmenetan, diru-laguntzetan, beketan, programetan, eta abarretan, 33/2002 Foru Legeak, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa, ezartzen duen arabera. *(Kode.E5.L3.A2)*

**3. EKINTZA:** Desgaitasuna duten pertsonen premiei erantzuten dieten irizpideak ezartzea diru-laguntzen, beken programen eta abarren oinarrietan. *(Kode.E5.L3.A3)*

**4. EKINTZA:** Artista emergenteei ez ezik, baita egoera finkatuagoa dutenei ere laguntzeko programak bultzatzea. *(Kode.E5.L3.A4)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |
| 3.ekintza | | x | x | x | x | x | x |
| 4.ekintza | | x | x | x | x | x | x |



# 6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KULTURAREN ZEHARKAKOTASUNA ETA HIBRIDAZIO ESTRATEGIKOAK

6. Ardatzaren **erronkak:**

KULTURA POLITIKA PUBLIKOEN ZEHARKAKO OSAGARRI BIHURTZEA, NAFARROAN GARATUKO DIREN ESTRATEGIETAN HAUEN PRESENTZIA INDARTUZ (LIBURU ZURIAK, PLAN ESTRATEGIKOAK ETA BESTE SAILETAKO JARDUKETA-PLANETAN, HALA NOLA, HEZKUNTZA, TURISMOA ETA MERKATARITZA, GARAPEN EKONOMIKOA, ETAB.)

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E6.L1)- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN LANKIDETZA SUSTATU, SAILEKOA ZEIN BESTE SAILEN ARTEKOA

(Kode-E6.L2)- HAUSNARKETA ETA LANKIDETZA EGONKORREN MEKANISMOAK ETA NAFARROAKO BESTE ERAGILE SEKTORIALEKIN PARTEKATUTAKO PROIEKTUAK SORTU

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E6.L1) KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN LANKIDETZA SUSTATU, SAILEKOA ZEIN BESTE SAILEN ARTEKOA.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Kultura Zuzendaritza Nagusiaren barnean topaketa-dinamikei jarraitasuna ematea eta sendotzea, eta beste arloen partaidetzarekin proiektu partekatuak garatzea, besteak beste: Hezkuntza, Turismoa, Merkataritza, Industria, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, etab.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Kultura Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu desberdinen arteko elkarrekintza garatzen jarraitzea, eta baita Departamentuko beste Zuzendaritzekin ere, Gazteriarekin bereziki, sinergiak eta topaketa-puntuak ezartzeko. *(Kode.E6.L1.A1)*




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| x | x | x | x | x | x | x |



## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA**: Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Hezkuntza Sailaren artean sortutako lan-taldea garatzen jarraitzea, kultura, arte eta sormenarekin lotutako programa kurrikularrak eta beste ekimen batzuk garatu ahal izateko, horretarako toki komuna bilatuz. *(Kode.E6.L1.A2)*

**3. EKINTZA**: Ekimenak, programak, hausnarketa eremuak eta elkarrekin egindako lanak garatu ahal izateko, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Turismoa, Merkataritza, Industria, Enplegua, Berdintasuna, etab. bezalako sektore osagarrien Departamentu, Erakunde eta entitateekin elkarrekintza sendotzea. *(Kode.E6.L1. A3)*

| | Ilberria | | ilgora | | ilbetea | ilbehera | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
| 2.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |
| 3.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |
| | Izerdiaren isuria sustraietan dago | | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da | |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E6.L2) HAUSNARKETA ETA LANKIDETZA EGONKORREN MEKANISMOAK ETA NAFARROAKO BESTE ERAGILE SEKTORIALEKIN PARTEKATUTAKO PROIEKTUAK SORTU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura eta sormenaren sektorearen eta beste jarduera-sektoreen arteko lankidetza sustatzea sinergiak, garapen ekonomiko eta enpleguko aukerak sortarazteko, eta kulturaren iraunkortasuna laguntzeko.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura eta sormenaren eragileen eta zientzia, teknologia, etab. bezalako beste eremuen arteko espazio eta foroak sortzea, esperientzia-trukea eta berrikuntza eta sormena biltzen dituzten proiektu partekatuen garapenerako. *(Kode.E6.L2.A1)*

2. EKINTZA: Kulturan lankidetza ekonomikoa sustatzea sektorearen barneko eta sektoretik kanpoko mailan, topaketa tresnak eta lekuak sortuz, non proiektuak sinergiei eta beste eragileei esker aberastu eta hasten baitira. *(Kode.E6.L2.A2)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | X | X | x | x | x | x | x |
| 2.ekintza | x | x | x | x | x | x | x |



# 7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KULTURA-ESKAINTZAREN IKUSGAITASUNA ETA ANIZTASUNA

## 7. Ardatzaren erronkak:

LURALDEARI ZEIN KANPORALDERA BEGIRA KULTURA ETA SORMENARI IKUSGAITASUNA EMATEA; NAFARROAN BIZI DIREN PERTSONA GUZTIEK KULTURA ESKURAGARRI IZAN DEZATELA SUSTATZEA, GIZARTE OREKAREN IRIZPIDEAK BARNERATUZ

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

- (Kode-E7.L1)- NAFARROA OSORAKO KULTURA AGENDA BAKARRAREN SORKETA BULTZATU
- (Kode-E7.L2)- NAFARROAKO KULTURA ETA SORMENAREN HEDAPEN ETA SENSIBILIZAZIO PLANA MARTXAN JARTZEA
- (Kode-E7.L3)- KULTURA ETA SORMEN PROFESIONALEN ETA ENPRESEN ETA HAUEN PROIEKTU KULTURALEN PROIEKZIO NAZIONALA ZEIN NAZIOARTEKOA BERMATU
- (Kode-E7.L4)- HERRITARREK KULTURA ESKURAGARRI IZATEA SUSTATU EDUKI ETA PUBLIKO ANITZETAKO ESKAINTZA ZABALAREN BIDEZ
- (Kode-E7.L5)- ESKAINTZA KULTURALAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO MODELO BERRIAK BERMATU

Jarduketa-ildoa:

(Kode-E7.L1) NAFARROA OSORAKO KULTURA AGENDA BAKARRAREN SORKETA BULTZATU.

Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Lurraldean garatutako eskaintza osoa batzen duen sistema sortzea, Nafarroan operatzen dituzten kultura eta arte eragileen eskaintzari arreta berezia ematen diona lurralde osoan ikusgarri izan daitezen. Sistema lagunkoia, desgaitasun guztientzako eskuragarria (bisuala, entzumenezkoa, fisikoa eta kognitiboa) eta publikoen araberako hedaketarako euskarri desberdinak kontuan hartzen dituena.

Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura agenda sortzea Nafarroan. *(Kode.E7.L1.A1)*



## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Kultura agendaren hedaketarako euskarri hurbil, anitz eta desgaitasun guztientzako irisgarriak diren mekanismoak ezarri, bereziki gazteentzat. *(Kode.E7.L1.A2)*

| Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera |
|---|---|---|---|
| Izerdiaren isuria sustraietan dago | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da |

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | | x | x | | | |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E7.L2) NAFARROAKO KULTURA ETA SORMENAREN HEDAPEN ETA SENSIBILIZAZIO PLANA MARTXAN JARTZEA.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Nafarroako kultura eta sormenari ikusgarritasun handiagoa eman gizarte osoan zehar, kulturari balorea ematea ahalbidetzen duen begirada bikoitzarekin, bata Foru Erkidegorantz, eta bestea kanporantz.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Publiko desberdinak kontuan izanda, Nafarroako kultura eta sormenaren komunikazio eta sentsibilizazio plana garatu. *(Kode.E7.L2.A1)*

Ilberria — Izerdiaren isuria sustraietan

ilgora — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

ilbetea — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

ilbehera — Izerdiaren isuria jaisten da

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | x | x | | | |

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Komunikazio eta sentsibilizazio planarekin lotuta "Nafarroa marka" sortu, nafartar kultura eta sormenaren ikusgarritasuna eta bere profesionalen izena hobetzeko, eta barne eta kanpoko merkatuan kultura-produkzioari balio erantsia emateko, merkatu hauetan Foru Erkidegoaren kultura eta sormenaren pertsona profesionalen eta enpresen kokapenaren alde. *(Kode.E7.L2.A2)*

3. EKINTZA: Kulturaren giza-balioaren aldeko sentsibilizazio kanpainak garatu, kultura osasuna, hezkuntza, etab. bezain zerbitzu publiko garrantzitsua dela finkatzeko. Kulturaren ezagutzaren hedaketa egin, lurraldearen ezagutza eta historiatik habiatuta. *(Kode. E7.L2.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | x | x | x | | | |
| 3.ekintza | | x | x | x | | | |



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E7.L3) KULTURA ETA SORMEN PROFESIONALEN ETA ENPRESEN ETA HAUEN PROIEKTU KULTURALEN PROIEKZIO NAZIONALA ZEIN NAZIOARTEKOA BERMATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura eta sormen profesional eta enpresen garapena eta iraunkortasuna sustatu, beste Autonomi Erkidego eta nazioarteko mailara duten ekintza marjina handituz.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Profesionalak eta enpresak feria, jaialdi, kongresu etab.-etara joan daitezen babes publikoa sustatu. *(Kode.E7.L3.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | X | X | X | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da — Izerdiaren isuria jaisten da

# 4. Adarrak

## Ardatzak eta ekintzak Nafarroan kultura indartzeko[...]

### Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Nafarroako ekosistema multzoari ikusgarritasuna emateko, Kultura Zuzendaritza Nagusitik sektore desberdinen, estatukoen eta nazioartekoen sareetan partaidetza bultzatzea. *(Kode.E7.L3.A2)*

3. EKINTZA: Europa eta nazioarteko mailan eta beste Autonomi Erkidegoen eta profesionalen arteko truke-programak (egonaldi artistikoak, sormen prozesua, partekatutako ikerketak, etab.) *(Kode.E7.L3.A3)*

4. EKINTZA: Europar proiektuetan partaidetza garatu eta sustatu eta, honekin lotuta, Interreg Europe CRE HUB: Policies for cultural CREative industries: the HUB for innovative regional development proiektuan parte hartzen jarraitu. *(Kode.E7.L3.A4)*

5. EKINTZA: Beste entitate/erakundeen laguntzarekin, Nafarroa Euroregion eremuan ezagutzera eman eta kultura eta lurraldearen erakusleihotzat funtzionatzen dituzten nazioarteko jaialdien organizazioa sustatu. Turismoarekin eta eskualde desberdinak bisitatzearekin lotuta. *(Kode.E7.L3.A5)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | x | x | x | | | |
| 3.ekintza | | | x | x | | | |
| 4.ekintza | x | x | x | x | | | |
| 5.ekintza | | | x | x | | | |



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E7.L4) HERRITARREK KULTURA ESKURAGARRI IZATEA SUSTATU EDUKI ETA PUBLIKO ANITZETAKO ESKAINTZA ZABALAREN BIDEZ.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Arte eta kultura diziplina guztiak, tradizionala eta proiektu esperimentalen bidezko berrikuntza eta, giza-irizpideen orekarekin, nafartar biztanleria osoaren beharrei erantzun ematea kontuan hartu eta barneratzen duten eskaintza anitzaren bidez kultura eskura izatea bermatzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Egun dauden kultura-programak sendotu: Kultur, Landarte, etab. *(Kode.E7.L4.A1)*

2. EKINTZA: Nafarroako herritar guztiak kultura eskuragarri izatea bermatzen dituzten ekimenak sustatu: ezgaitasunen bat duten pertsonak, dimentsio txikiagotan kokatuta dauden mugikortasun arazoak dituzten pertsona nagusiak, familiak, haurrak, gazteak LGTB kolektiboa, enplegurik ez duten pertsonak, baliabide gutxiago dituzten kolektiboak edo gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak, etab. *(Kode.E7.L4.A2)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | X | X | | x | | | |
| 2.ekintza | | x | | x | | | |


Izerdiaren isuria sustraietan dago


Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da


Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da


Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E7.L5) ESKAINTZA KULTURALAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO MODELO BERRIAK BERMATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Urtaroko eta eskualdeko gehiegizko programazio eta ekimen kulturalen eta ez-kulturalen arteko kontra-programazioa ekiditeko, eskaintzaren kudeaketa eta kordenazio ereduen ezarketa bultzatu.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nafarroako herritar guztiek kultura eskaintza minimoa izatea bermatzen dituzten ekimenak bultzatzea eta, beraz, eskaintza lurraldearatzea. *(Kode.E7.L5.A1)*

*Nafarroako* Kultura Agendarekin lotutako ekintza. *(Kode.E7.L1.A1)*

2. EKINTZA: Hiriburuan eta honen inguruan metatuta dagoen kultura eskaintza deszentralizatzea sustatu:

- Espazio eszenikoak dituzten udalerriei eta lekuz aldatzeko gaitasun gutxiago duten taldeei formatu txikiagoak hurbilduz (NOSaren musika talde txikiak, modu ibiltarian kultura zentroetatik zirkuitatzen dituzten artelanen hautaketa, etab.
*(Kode.E7.L5.A2)*

Ilberria


ilgora


ilbetea


ilbehera


| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | X | x | | | |
| 2.ekintza | | X | X | x | | | |


Izerdiaren isuria sustraietan dago


Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da


Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da


Izerdiaren isuria jaisten da

# 8. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EKIPAMENDUAK: IRISGARRITASUNA ETA BALIABIDEAK

8. Ardatzaren erronkak:

KULTURA-EKIPAMENDUEN ARRAZOIZKO LURRALDE-PLANIFIKAZIOA SUSTATZEA NAFARROAN, ETA PERTSONA ERABILTZAILEEN ETA SORTZAILEEN/EKOIZLEEN IRISGARRITASUNA HOBETZEA

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E8.L1)- KULTURA-EKIPAMENDUEN LURRALDE-PLANIFIKAZIOA SUSTATU, TOKIKO ERAKUNDEEN LANKIDETZAREKIN

(Kode-E8.L2)- KULTURA-ERAGILE ETA ERAGILE ARTISTIKOEN ETA BAITA HERRITARREN KULTURA-EKIPAMENDUEKIKO IRIGARRITASUNA ERRAZTEKO EKIMENAK BULTZATU

(Kode-E8.L3) KULTURA SORTZEKO ETA ERAKUSTEKO ESPAZIO ASKOTARIKOEN ERABILERA ETA USTIAPENA SUSTATU

(Kode-E8.L4) AZPIEGITUREN ERABILERA ESKATZEN EZ DUTEN EKIMENAK BULTZATU

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E8.L1) KULTURA-EKIPAMENDUEN LURRALDE-PLANIFIKAZIOA SUSTATU, TOKIKO ERAKUNDEEN LANKIDETZAREKIN.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Tokiko erakundeekin elkarlanean, kultura-ekipamenduen lurralde-oreka sustatzea Nafarroan, kultura-eragileei eta eragile artistikoei eta baita herritarrei ere ekipamendu horietara irisgarritasuna errazteko xedearekin.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Kultura-azpiegitura berriak eraikitzeko asmoa duten tokiko erakundeei aholkua eta gomendioak ematea, ekipamenduen lurralde-oreka sustatuz eta irisgarritasunaren gaiak kontuan hartuz. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago. *(Kode.E1.L1.A1) (Kode.E8.L1.A1)*

2. EKINTZA: Hurbileko kultura-azpiegituren mapa geolokalizatua egitea, beste motatako kultura-azpiegiturak geruzaz-geruza barnean hartuko dituena. *(Kode.E8.L1.A2)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | x | x | x | x | x |
| 2.ekintza | Lehenengo fasea: kultura-azpiegiturak | Bigarren fasea: osaketa | x | x | x | x | x |

Izerdiaren isuria sustraietan dago — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da — Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E8.L2) KULTURA-ERAGILE ETA ERAGILE ARTISTIKOEN ETA BAITA HERRITARREN KULTURA-EKIPAMENDUEKIKO IRIGARRITASUNA ERRAZTEKO EKIMENAK BULTZATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura-azpiegituren erabilera intentsiboago, irisgarriago eta anitzagoa sustatzea erabiltzaile-mailan, lurralde nafartarraren kultura-jardueraren dinamizazio-bide gisa.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Tokiko sortzaileen ikerkuntza, sorkuntza, erakusketa, eta abarren lana erraztea ekipamendu hurbilenetan. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago *(Kode.E1.L1.A1) (Kode.E8.L2.A1)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | X | X | X | X | X |

Izerdiaren isuria sustraietan | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Kultura-espazioen egokitzapena sustatzea, edo mugikortasun zailtasuna duten desgaitasuna pertsonentzat irisgarriak izan daitezen. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago. *(Kode.E1.L1.A1) (Kode. E8.L2.A2)*

**3. EKINTZA:** Elkarteek kultura-espazioak erabil ditzaten erraztasunak ematea, haien jarduera gara dezaten. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago. (*Kode.* E1.L1.A1) (Kode.E8.L2.A3)

| | Ilberria | | ilgora | | ilbetea | ilbehera | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
| 2.ekintza | | x | X | X | X | X | X |
| 3.ekintza | | x | X | X | X | X | X |

Ilberria: Izerdiaren isuria sustraietan dago

ilgora: Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

ilbetea: Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

ilbehera: Izerdiaren isuria jaisten da

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E8.L3) KULTURA SORTZEKO ETA ERAKUSTEKO ESPAZIO ASKOTARIKOEN ERABILERA ETA USTIAPENA SUSTATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Programazioa, sorkuntza, ikerkuntza, prestakuntza, erakusketa, eta abar bultzatzea kultura-ekipamenduetan eta ohikoak ez diren beste gunetan, besteak beste: hiri-ingurunea, erabilpenik gabeko industria-pabilioiak, etab.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Arte profesionala eta amateurra kalera eramateko ekimenak sustatzea, bereziki arreta jarriz gazteen partaidetza barnean hartzen dituzten horietan. *(Kode.E8.L3.A1)*

Ilberria — Izerdiaren isuria sustraietan

ilgora — Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

ilbetea — Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

ilbehera — Izerdiaren isuria jaisten da

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | X | X | X | X | X |

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Erabilpenik gabeko azpiegituren ustiapen-politikak laguntzea, erabilpen hori kultura-xedeetara bideratzeko asmoarekin. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago. *(Kode.E1.L1.A1) (Kode.E8.L3.A2)*

3. EKINTZA: Tamaina txikiko udalerrietan kultura-erabilerarako guneak bilatzea sustatzea, jarduera baldintza egokietan egin ahal izateko. Ekintza hori Koordinazio Foroarekin lotuta dago. *(Kode.E1.L1.A1) (Kode.E8.L3.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | x | X | X | X | X | X |
| 3.ekintza | | x | X | X | X | X | X |

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E8.L4) AZPIEGITUREN ERABILERA ESKATZEN EZ DUTEN EKIMENAK BULTZATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura-jarduerak egiteko/gozatzeko aukerak ematea horretarako ekipamendurik ez duten udalerriei.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Nagusiki Nafarroako landa-ingurunean kokatutako udalerri txikietan kultura-ekimen ibiltariak garatzeko jardunbide egokiak bilatzea eta berreskuratzea. *(Kode.E8.L4.A1)*

2. EKINTZA: Landa-garapeneko Sailarekin lan-ildoa jarraitzea aukera berriak esploratzeko asmoarekin. *(Kode.E8.L4.A2)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | x | X | X | X | X | X |
| 2.ekintza | | x | X | X | X | X | X |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

# 9. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KULTURA-SEKTOREAK ETA BALIO-KATEA

9. Ardatzaren erronkak:

LIBURUTEGIAK, MUSEOAK, ARTXIBOAK, ONDARE HISTORIKOA, KULTURA-EKINTZA ETA HORIEN BALIO-KATEA DINAMIZATU

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

- (Kode-E9.L1)- NAFARROAKO LIBURUTEGI-SAREA KOHESIONATU ETA INDARTU
- (Kode-E9.L2)- FINANTZAKETA PUBLIKOA GEHITU KULTURA-ONDAREAREN EREMUAN
- (Kode-E9.L3) KULTURA-EKINTZA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU
- (Kode-E9.L4) MUSEOEN JARDUERA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU
- (Kode-E9.L5) ARTXIBOEN JARDUERA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E9.L1) NAFARROAKO LIBURUTEGI-SAREA KOHESIONATU ETA INDARTU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Nafarroako Liburutegi-sarearen sendotasuna bultzatzea, herritarrengan hurbilen dagoen kultura-zerbitzua eta lurraldea ardazten duena.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1\. EKINTZA: Liburutegien arteko mailegua finkatzea.
*(Kode.E9.L1.A1)*

2\. EKINTZA: Ondare bibliografikoa hedatzeko plataforma digitalaren garapen osoa.
*(Kode.E9.L1.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

**3. EKINTZA:** Udal liburutegi guztiak Liburutegi-sarearen Katalogo Kolektiboan sartzea. *(Kode.E9.L1.A3)*

**4. EKINTZA:** Sarearen eragina landa-inguruneetan zabaltzea. *(Kode.E9.L1.A4)*

**5. EKINTZA:** Nafarroako Liburutegian ematen diren Zerbitzuak gehitzea eta hobetzea. *(Kode.E9.L1.A5)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | | x | | | | | |
| 4.ekintza | | x | | | | | |
| 5.ekintza | | x | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E9.L2) FINANTZAKETA PUBLIKOA GEHITU KULTURA-ONDAREAREN EREMUAN.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Nafarroako Gobernuaren edo udal titulartasuna duten eraikin historikoetan, artistikoetan eta monumentaletan behar diren inbertsioei lehentasuna ematea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kanpaina arkeologikoetarako eta arkeologia-aztarnategietarako Gobernuak ematen duen gordailua gehitzea.*(Kode.E9.L2.A1)*

2. EKINTZA: Ondasun higigarrien eta arkeologia-objektuen biltegi- eta kudeaketa-azpiegiturak hobetzeko baliabideak bideratzea, eta ondare etnologikoko osagarriak sartzea ahalbidetzea, gaur egun sakabanatuta eta baldintza txarretan baitaude. *(Kode.E9.L2.A2)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |



## Nola garatuko da ildo hau?

3. EKINTZA: Ondare historikoaren Sustapena eta hedapena bultzatzea, ondare historikoko edukia webguneetan mantenduz irisgarri diren web orrietan (Ondare Historikoaren Babeserako Fundazioa) eta Ondarearen Europako Jardunaldiak egiten jarraituz. (Kode.E9.L2.A3)

4. EKINTZA: Ondasun Higigarrien berriztapenerako esleipen ekonomikoa handitu. *(Kode.E9.L2.A4)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | | X | | | | | |
| 4.ekintza | | X | | | | | |



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E9.L3) KULTURA-EKINTZA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Kultura-ekintzan abian jartzen diren jarduketak hobetzea ahalbidetzen duten estrategiak garatzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Kultura-ekintza zerbitzuaren eta Baluarte Fundazioaren arteko lankidetza estrategikoa sakontzea Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa nagusienetan: Oliteko Antzerki Jaialdia, Punto de Vista Dokumentu-zinema Jaialdia, Nafarroako Dantza Jaialdia eta Lizarrako Antzinako Musika Astea. *(Kode.E9.L3.A1)*

2. EKINTZA: Lurralde-ikuspegiko bestelako programak garatzen jarraitzea, landa-ingurunean kultura-hedapeneko ekintzak urteko sasoi zehatzetatik ateratzeko. *(Kode.E9.L3.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

**3. EKINTZA:** Tokiko erakundeei zuzendutako diru-laguntzak gehitzea kultura-programazioa laguntzeko. Enpresen eta profesionalen ekoizpen eszenikoetarako diru-laguntzak gehitzea. Kultura-elkarteei kultura-hedapenarekin zuzendutako diru-laguntzak gehitzea, kultura herrikoiaren eremuko proiektuak sustatzeko asmoarekin eta jardueren programazioak eta jarduerak pertsona guztientzako irisgarriak izatea puntuatzea diru-laguntzetan. *(Kode.E9.L3.A3)*

**4. EKINTZA:** Nafarroako kultura eta sormen enpresen merkataritza-dinamizazioa sustatzea, inguruko lurraldeetako banatzaileak eta programatzaileak partaide bihurtzeko ekimenen bitartez. (Euskadi, Errioxa, Aragoi, Katalunia, Madril, Frantziako Hegoaldea). *(Kode.E9.L3.A4)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | | x | | | | | |
| 4.ekintza | | x | | | | | |

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E9.L4) MUSEOEN JARDUERA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Nafarroako Museoen eremuan abian jartzen diren jarduketak hobetzea ahalbidetzen duten estrategiak garatzea.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Nafarroako Museoaren eraikinean esku hartzea ahalbidetzen duen beharrezko inbertsioa egitea, energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, eta bertako bildumak behar den bezala zaintzeko xedearekin. *(Kode.E9.L4.A1)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | x | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan | Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da | Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da | Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Karlismoaren Museoan edukiak berriztatzea.
*(Kode.E9.L4.A2)*

**3. EKINTZA:** Nafarroako kultura-ondare immaterialaren alde agin ohi den lanari eustea, berezko adierazpenen inbentarioarekin jarraituz.
*(Kode.E9.L4.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | X | | | | | |
| 3.ekintza | | X | | | | | |



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E9.L5) ARTXIBOEN JARDUERA ETA HAREN BALIO-KATEA GARATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Nafarroako Artxiboen eremuan abian jartzen diren jarduketak hobetzea ahalbidetzen duten estrategiak garatzea.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Musika eta Arte Eszenikoetako Artxiboa garatzea. *(Kode.E9.L5.A1)*

2. EKINTZA: Administrazioaren Artxiboaren eraikinean esku hartu, Nafarroako Gobernu osoari dagokion administrazio elektronikoa ezartzeko artxibo digitala garatzea. *(Kode.E9.L5.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

3. EKINTZA: Hedapen historikoa dinamizatzea, Nafarroako Artxibo Erreala eta Orokorretik eta Foru Erkidegoko Administrazioaren Artxibotik.
*(Kode.E9.L5.A3)*

4. EKINTZA: Nafarroako tokiko erakundeetako artxibo-sistemen antolaketa eta kudeaketan laguntzea.
*(Kode.E9.L5.A4)*

5. EKINTZA: Nafarroako Artxiboen Zentsua eta Erregistroa bultzatzea, Nafarroako Artxiboen Maparekin batera.
*(Kode.E9.L5.A5)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.ekintza | | x | | | | | |
| 4.ekintza | | x | | | | | |
| 5.ekintza | | x | | | | | |



# 10. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK

## 10. Ardatzaren erronkak:

KSI SEKTOREAN IKUSPEGI ALDAKETA ABIARAZI HAREN GARAPENA LAGUNTZEKO, HERRIALDE-POLITIKAKO TRESNEN ETA EKINTZAILETZA ETA LANBIDE-GARAPENERAKO NEURRIEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA HOBETUZ

Erronka lortzeko planteatzen diren ildoak:

(Kode-E10.L1)- INTERESATUTA DAUDEN ALDERDI ASKOTARIKOEN ETA BERE GARAPENERAKO FUNTSEZKOAK DIREN ERAGILEEN ARTEAN KSI-EI BURUZKO IKUSPEGI PARTEKATUA SUSTATU

(Kode-E10.L2)- EZAGUTZA ETA DATU-ITURRIAK GEHITU KSI-en SEKTOREAN

(Kode-E10.L3)- HERRIALDE MIALAKO PERTZEPZIOA ETA LURRALDE MAILAKO IKUSPEGIA SUSTATU KSI-en SEKTORERAKO

(Kode-E10.L4)- KSI-etara ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK GEHITU ETA HORIEK ESKURATZEKO BIDEAK HOBETU

(Kode-E10.L5)- KSI-ak LAGUNTZEKO ZERBITZUAK ETA EUSKARRIAK INDARTU

(Kode-E10.L6)- ERAKUNDE PUBLIKOEK HERRIALDE-GARAPENAREKIKO DUTEN KONPROMISOA KULTURAREN BITARTEZ SENDOTU

## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E10.L1) INTERESATUTA DAUDEN ALDERDI ASKOTARIKOEN ETA BERE GARAPENERAKO FUNTSEZKOAK DIREN ERAGILEEN ARTEAN KSI-EI BURUZKO IKUSPEGI PARTEKATUA SUSTATU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

KSI-en sektorearen identifikazioari buruz erabaki hartzea. Identifikazio hori nazioarteko estandarretan oinarritu behar da, alderaketa errazteko eta, hala ere, herrialdeko espezifikoa izanez eta funtsezko eragile guztiek ontzat emanez.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Administrazio Publikoen, sektore-eragileen eta adituen arteko hausnarketa-gunea bultzatzea KSI-en sektorearen definizio partekatua ezartzeko, alderaketa ahalbidetuko duten nazioarteko estandarren arabera.
*(Kode.E10.L1.A1)*



## Jarduketa-ildoa:

(Kode-E10.L2) EZAGUTZA ETA DATU-ITURRIAK GEHITU KSI-en SEKTOREAN.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Sektorea identifikatzea haren egitura, jokaera eta eragin ekonomikoaren arabera.

## Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA:KSI-ei buruzko ikerketa egitea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean. *(Kode.E10.L2.A1)*

2. EKINTZA: Nafarroako Kulturaren Behatokiaren esparruan, KSI-en sektorearen atariko diagnostikoa/ mapeoa egitea, haren garapena monitorizatzea ahalbidetuko duten datu eguneratuak aldizka emateko asmoarekin. *(Kode.E10.L2.A2)*

Ilberria



ilgora



ilbetea



ilbehera



| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |



Izerdiaren isuria sustraietan dago



Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da



Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da



Izerdiaren isuria jaisten da

Jarduketa-ildoa:

(Kode-E10.L3) HERRIALDE MIALAKO PERTZEPZIOA ETA LURRALDE MAILAKO IKUSPEGIA SUSTATU KSI-en SEKTORERAKO.

Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Sektorearen ikusgaitasuna handitzeko, herrialdean eta herrialdetik kanpo haren aintzatespena gehitzeko eta merkatuak inguruko eta mugaz gaindiko lurraldeetara hedatzeko tresnak sortzea.

Nola garatuko da ildo hau?

1. EKINTZA: Dauden plataformak biltzea, haien arteko komunikazioa hobetzea; klusterrak, elkarteak eta sareak sustatzea. *(Kode.E10.L3.A1)*




| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | X | | | | | |



## Nola garatuko da ildo hau?

**2. EKINTZA:** Herrialdeko garapen-politikak koordinatzea. (RIS3 Nafarroako Hegoaldea). *(Kode.E10.L3.A2)*

**3. EKINTZA:** Ekintzailetza eta berrikuntza landa-inguruneetan sustatzea. *(Kode.E10.L3.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | x | | | | | |
| 3.ekintza | | x | | | | | |



**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E10.L4) KSI-etara ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK GEHITU ETA HORIEK ESKURATZEKO BIDEAK HOBETU.

## Zein da jarduketa-ildo honen helburua?

Aukera profesionalak gehitzea sektorean.

## Nola garatuko da ildo hau?

**1. EKINTZA:** Kultura-baliabideen eta, batez ere, KSI-etarako funtsezkoak direnen datu-base irekia eta partekatua sortzea. *(Kode.E10.L4.A1)*

**2. EKINTZA:** Eragile ezberdinak koordinatzea KSI-ei buruzko Politiken garapenean elkarlanean ari daitezen eta dauden zerbitzuak hobe ditzaten. *(Kode.E10.L4.A2)*

Ilberria | ilgora | ilbetea | ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E10.L5) KSI-ak LAGUNTZEKO ZERBITZUAK ETA EUSKARRIAK INDARTU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

Enpresa berriei zuzendutako Zerbitzuak KSI-etara egokitzea, eta zuzeneko eta zeharkako euskarri-tresna berriak abiaraztea.

**Nola garatuko da ildo hau?**

1. EKINTZA: Sektore afizionatuari aurre egiteko ikuspegi espezifikoa eta irabazi asmoa duten kultura eta sormen enpresak sustatzea.
*(Kode.E10.L5.A1)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

## Nola garatuko da ildo hau?

2. EKINTZA: Dagoen potentziala, bereziki hirugarren adinarekin, baliatzeko ikuspegia. *(Kode.E10.L5.A2)*

3. EKINTZA: KSI-en balio-katean atentzioa jartzea, bereziki komunikazioan. *(Kode.E10.L5.A3)*




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.ekintza | | x | | | | | |
| 3.ekintza | | x | | | | | |



**Jarduketa-ildoa:**

(Kode-E10.L6) ERAKUNDE PUBLIKOEK HERRIALDE-GARAPENAREKIKO DUTEN KONPROMISOA KULTURAREN BITARTEZ SENDOTU.

**Zein da jarduketa-ildo honen helburua?**

KSI-ak lege-esparru sendoaz hornitzea, haren garapena lagunduko duena.

**Nola garatuko da ildo hau?**

**1. EKINTZA:** Kultura-eskubideen Foru Legea garatzen jarraitzea. *(Kode.E10.L6.A1)*

**2. EKINTZA:** Kulturaren balio-katea sakonago ulertzea lagunduko duen lege-oinarria sortzea. *(Kode.E10.L6.A2)*

Ilberria — ilgora — ilbetea — ilbehera

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.ekintza | | X | | | | | |
| 2.ekintza | | X | | | | | |

Izerdiaren isuria sustraietan dago

Izerdiaren isuria adar eta hostoetara igotzen da

Izerdiaren isuria adar, hosto, lore eta fruituetan biltzen da

Izerdiaren isuria jaisten da

# 5. Mantentze-lana

## Jarraipena eta ebaluazioa Plana hobetzeko

[...]

**Zuhaitzaren fruituek elikagaien aberastasunaren, uraren** eta jaio eta hazten den testuingurua**ren beharra dute.**

Horregatik, mantentze-lana haren zainketarako funtsezko osagarria da.

Planean, bertan planteatzen diren jarduketen aldizkako jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotzen ditugu fruituak eta mantentze-lana. Hori guztia, haren hazkundea hobetzeko xedearekin.

## 5.1. Planaren ebaluazioa eta jarraipena: Helburuak eta ezaugarriak

2017-2023 aldian zehar garatuko diren hainbat ardatz estrategikoen, jarduketa-ildoen eta ekintzen arabera antolatuta dago Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa. Mailakako garapen horrek jarraitua eta ebaluatua izan beharko du, xede laukoitzarekin:

### BURUTZEAREN JARRAIPENA

Planeatutako esku-hartze askotarikoen egikaritzearen aurreratze jarraitua ezagutzea eta balioztatzea; eta, dagokion kasuan, aipatu egikaritze-zailtasunak gainditzeko neurri zuzentzaileak edo, dagokion kasuan, topatutako egoerarekin bat datozen birplanteamendu operatiboak hartzea, Plana garatzeko.

Planaren jarraipenak suposatzen du... planeatutako jardueren egikaritzearen monitorizazio egituratua eta sistematikoa (egikaritze-adierazleak sortzen dituzten informazio-sistemak: jarraipen-adierazleen koadroa).

### EMAITZAREN EBALUAZIOA

Burututako ekintzen ondorioz lortutako erantzuna edo "emaitza" balioztatzea, epe laburrean ekintza horietarako planteatutako helburuak kontuan hartuz.

Haren irudikapena ondorengo osagarrietan oinarritzen da:

- Eraginkortasuneko adierazleetan (espero diren helburuak eta lortutako emaitzak elkarrekin lotzea); efizientziazko adierazleetan (emaitza horiek eta haien kostuak edo inbertsioa elkarrekin lotzea).
- Baina, halaber, ebaluatutako eremuaren arabera, eragileak edo/eta herritarrak mugiaraztearen edo inplikazioaren maila kuantitatibo eta kualitatiboen balioztapenean; lotutako asebetetzea; eta baita ikuspegi askotarikoetatik –objektiboak eta subjektiboak- hautemandako berehalako ondorioetan.

### PROZESUEN EBALUAZIOA

Ebaluatu nahi diren politikak/jarduketak, garatutako prozesuak, koordinazioa eta lidergoa, informazio-sistemak, ... nola ari diren abiarazten aztertzean datza, azkenik lortutako emaitzak helburuak lortzeko neurrien diseinu eta egokitasunaren menpean ez ezik, baita esku-hartzeak garatzen diren moduaren menpean daudela ulertuz (epeak, prozedurak, etab.). Hortaz, egikaritzean edo emaitzetan hautemandako arazo-guneetan eragina duten zailtasun operatiboak eta ekintzek garatzen dituzten eremuetan arrakastaz diharduten osagarri bideratzaileak identifikatzean eta balioztatzean datza.

INPAKTU-EBALUAZIOA

Normalean epe luzean espero diren ondorio eraldatzaileen balioztatzearekin identifikatzen da, haien inpaktua ikusgai izateko denbora bat behar duten eraldaketarako baldintzak erein eta sortzen baitituzte garatutako ekintza-ildo askok.

## 5.2. Ebaluazio-gailua: Ezaugarriak, denborak eta esku-hartzeak

Hortaz, garatzen den ebaluazio-gailua lau helburu horiek lortzeko gai izan beharko da. Suposatzen dutenak:

- Informazio iraunkorra sortzea, hau da, dinamikoa.
- Parte hartzen duten eragile ezberdinen (publikoak eta pribatuak) begirada integratzea eta haztatzea; hau da, parte-hartzailea izatea.
- Ardatz ezberdinen jarraipena eta ebaluazioa aintzat hartzea eta, aldi berean, Planaren integraltasuna kontuan hartzea, hau da, espezifikoa eta globala izatea.
- Begirada osagarriei erantzutea (jarraipenezkoa, egikaritzezkoa, prozesuzkoa, emaitzazkoa eta inpaktuzkoa), ebaluazio-gailua eraginkorra izan dadila eta ikaskuntza sor ditzala ahalbidetuko dutenak, hau da, planaren diseinu, kudeaketa eta garapen ikuspegi ezberdinetatik hobetzailea izatea.

Horretarako, iradokitzen da planaren "uneekiko" sentibera izatea eta esku-hartzeak antolatzeko denbora eta begirada ezberdinak bereiztea. Horrela, a priori, hiru begirada ezberdinak iradokitzen dira:

- Jarraipenezko Begirada (burutzearen kontrol jarraitua –urtekoa- ardatz hartzen duena): urtebetekoa izango dena, eta produktu bikoitzan irudikatuko dena: Jarraipen-adierazleen Sistema (tresna) eta Burutze-jarraipenaren Urteko Txostena (Produktua).
- Begirada Operatiboa: Garapen-plan Operatiboarekin lotuta, bi urtez behin egitekoa), bi urtez behin Emaitzen eta Prozesuen Ebaluazioa ardatz hartuko duen begirada. Haren garapena ezin da ulertu ardatz, jarduketa-ildo eta ekintza ezberdinek ezarritako helburu zehatzen berri eduki gabe.
- Begirada Estrategikoa (lau urtez behingo epearekin lotuta): 7 edo 8 urtetako plan estrategiko batean Bidearen Erdiko Inpaktu-ebaluazioa eta Azkeneko Inpaktu-ebaluazioa egitea suposatzen du.

Haren garapenak prozesuan zeharreko Egikaritze-, Emaitza- eta Inpaktu-adierazleak sortuko ditu prozesuan zehar, garatzen diren esparruak kokatuak izan beharko direnak – Testuinguru-adierazleak-. Ildo horretan,Planaren ebaluazio- eta jarriapen-gailua eta haren informazio-sistema lotuta egon beharko da (informazioaren erabiltzaile eta hornitzaile gisa) kultura-informazio sistema zabalago batekin, Nafarroako Kulturaren Behatokiaren esparruan zentzua eta eraginkortasuna hartzen duena.

Testuinguru horretan, ebaluazio-gailuak foro zehatzak, funtsezko informatzaileak, eragile laguntzaileak, informazioa emateko edo sortzeko protokolo eta dinamika egonkorrak , eta abar bilatu beharko ditu, Nafarroako kultura-informazio sistema orokorrak edo Behatokiak eskura jarriko dituen kultura-informazio sistemekin koordinatutako eta antolatutako esparruan.



# Nafarroako kulturaren zuhaitza

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza
Nagusia - Vianako Printzea Erakundea
Nafarroako Kulturaren
Plan Estrategikoa 2017-2023

cultura navarra.es

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra